



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2018ko otsailaren 8a | XXXVIII. urtea | 703. zenbakia



Naroa ELIZALDE → 38  
Emakumezkoen binakako  
pilota txapelketan ariko da

**Paxaka → 38**  
Zazpi hirukote Baztan-  
errekako txapelketan

**BERA → 11**  
Ternuako arrantzaileen  
bizipenak ikusgai eta hizpide

**MALERREKA → 21**  
Hasiberriendako bertso  
eskola antolatuko dute

**ARESO → 27**  
Udalak herriko bi langile  
kontratatuko ditu

**ELIZONDO → 30**  
Plazako eraikinarekin  
eztabaida Udalean



DONEZTEBEKO HERRIGUNE HISTORIKOKO PLAN BEREZIA

## Eztabaida ezin aparkatu

Doneztebeko Udalak aitzinera atera nahi duen Herrigune Historikoko Plan Bereziak eztabaida sortu du: batzuk alde daude eta bertzeak kontra. Bi zati ditu plan bereziak: batetik, herriguneko etxebizitzaren balioa onartzea eta bertzetik, aparkalekuak egitea. Eta aparkalekuen gaia izandu da saltsa sortu duena. Izan ere, herriguneari ia lur publikorik ez dagoela eta, lur pribatuaren egitea aurreikusiko dute. Baina lur horien jabeek ez dute begi onez ikusi, eta plataforma ere sortu dute.

ERREPORTAJEA → 3-5



### Master mailako txirrindularitza taldea lanean

Zazpigarren denboraldia hasi du Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta txirrindularitza taldeak. Eskualdeko sei txirrindulari dira taldean, 60, 40 eta 30 urtez goitikoen kategorietan. → 39



### OIEREGI → 6 Juanto Apezetxea saritua

Kirol eta Gaztediaren Institutuak 2017ko Nafarroako entrenatzaile onena izendatu du.

ZOKKETAK → 48



Txartela egiteko deitu  
**948 63 54 58**ra edo  
idatzi [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)  
helbidera.



Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN - info@cristaleriabidasoa.com


Bidasoa kristaldegian esperientzia eta produktuetan eskaintza zabala dugu. **1958tik ari gara lanean**, eta orduz geroztik, **era guztietako beirak jartzen ditugu: obretakoak, lokal komertzialetakoak, etxeetakoak...** Dekorazio lanak ere egiten ditugu eta horrez gain, **koadroei markoak jartzen dizkiegu.**

«Urte horietan guztietan,  
Bidasoko eskualde osoan egin dugu lan».

Irun eta Hondarribiatik hasi, eta Elizondoraino bitarte, Bera, Lesaka, Etxalar, Doneztebe... eta beste hainbat herritan ibili gara.

GAUR EGUN, BATEZ ERE DEKORAZIO ETA ZAHARBERRITZE LANAK EGITEN DITUGU, BAI ETXEETAN, BAITA LOKAL PUBLIKO ETA KOMERTZIALETAN ERE:

- Duxetako manparak
- Kristalezko barandak
- Ate korrederak
- Sukaldeko aurrealdeak
- Koadroentzako markoak
- Ispiluak
- Beira dekoratiboak



## ESKAINITZA ZABALA DUGU!

Zure etxean edo lokalean gure beharra baduzu, ez izan zalantzarik, eta zatoz gu ezagutzera. Behar duzun horixe eskainiko dizugu!





ARGAZKIA: NEREA BAZTERRIKA

Ameztia karrikako irudia.

**GIZARTEA** → DONEZTEBEKO HERRIGUNE HISTORIKOKO PLAN BEREZIA

# Arazoa argi, konponbidea ilun

Doneztebeko herrigune historikoan egin nahi duten planak iritzi kontrajarriak sortu ditu

Eztabaida sortu du Doneztebeko Herrigune Historikoko Plan Bereziak. Bertzeak bertze, herrigunean ia lur publikorik ez dagoelako, lur pribatu-

tuetan aparkalekuak egitea aurreikusi dute. Lur horietako barride batzuek, ordea, plataforma sortu dute, plana «zentsugabea» dela iritzita.

## G. PIKABEA

Batzuk alde daude; bertzeak kontra. Eztabaida sortu du Doneztebeko Udalak herrigune historikoan egin nahi duen plan bereziak, eta horren kontra hainbat barride plataformak ere sortu dute, «kalterako eta zentsugabea» dela iritzita. Sinadura bilketa ere egin dute eta dendetan, fisikoan, 350 sinadura inguru bildu

omen dituzte, eta *change.org* atarian 700 bat.

## 2015EAN HASITAKO BIDEA

Doneztebeko Udala 2015ean hasi zen egitasmo honekin lanean, Xanti Uterga alkatearen hitzetan, legedira egokitzeko. «Udalean sartu eta laster, udal arkitektoak udal plana azaldu eta plan bereziaren beharra azpimarratu zigun, babestutako gu-

ne historikoek egin behar dute eta». 1982ko martxoaren 26an Monumentu Historiko Artistiko izendatu zuten Doneztebeko herrigune historikoa, eta bertan edozein lan egiteko beharrezkoa da plan berezia izatea. Alkateak kontatu digunez, «hasiera batean, legea betetzen ez genuelako hasi ginen planaren inguruan pentsatzen. Bereha-

la ikusi genuen tresna ona izaten ahal zela herriguneak eta herriak dituen arazo batzuei aurre egiteko». Plana egiteko helburuarekin jo zuen Nafarroako Gobernura, eta honek diru-laguntza eman zion Udalari planarekin aitzinera segitzeko.

## PLATAFORMA KONTRA

Ez dira denak iritzi berekoak. Plan bereziak ukitutako lituzkeen lur eremuetako jabe batzuek Doneztebeko Herrigune Historikoko Jabetza-Eskubideen Aldeko Plataformak sortu dute; Doneztebeko hamahiru familia eta Kasino eta Baztango S.L. elkarrekin urriaren 18an osatu zuten taldea. Beraien iritziz, plan berezian aurreikusi diren aparkalekuak sortzea «ez da inondik inora beharrezkoa». Halaxe diote Jaime Agirre, Jesus Mari Ruiz, Marisol Telletxea eta Itziar Juanenea plataformako ordezkariak.

Badira, halere, Doneztebeko herrigunean zer-bait egin behar dela uste

duenak. Natalia Rekarte merkataria irudiko, «bistakoa da Donezteben aparkalekuak behar direla, karridak kaotikoak direlako. Ez dakit zein den aukera egokiena, baina gero eta kotxe gehiago dago eta Doneztebeko aparkalekuak orain dela hogeitun urte bezala daude». Berak garbi du: «inguruko herrietako jendeari esker bizi da Doneztebe, eta herria denondako egokitu behar da; gure buruarengan bakarrik pentsatzen dugu, baina denon onerako pentsatu behar dugu».

Doneztebeko Udaleko PSNk ere zerbaiten beharra ikusten du: «herrigune historikoa bizitza galtzen ari da, negozio tikiak ixten ari dira, etxebizitzak husten...». Plana herrigune historikoa «hobetzeko» pentsatua dela gaineratu du, «ahalik eta kalte guttien sortzeko».

## PARTE-HARTZE PROZESUA

Plan berezia egiterakoan, herritarren ekarpenak kontuan hartu eta he-

rritarren interesa eta motibazioa bultzatzeko, parte-hartze prozesua paratu zuen Udalak abian. Horren barne, bilera irekiak eta inkestak egin zituzten: «jendeari planaren nondik norakoak azaldu eta aldi berean, egin behar zen inkestaren inguruan azalpenak emateko bilerak egin genuen. Bandoak etxe guztietan paratu eta inkesta postontzira bota genuen, familia guztiara ailegatzeko», dio Utergak. Guztira 121 herritarren erantzunak bildu zituzten, eta horietan, «agerian» gelditu zen doneztebarrek herrigune historikoan ikusten dituzten trafikoko beharrak eta oinezko eta kotxeen artean sortzen diren arazoak.

#### 'INFORMAZIOA FALTA'

Parte-hartze prozesua «hasieratik zentzugabekeria» izan da plataformarentzat, «Udalak parte-hartze prozesuan zehaztutako baldintzak ez baititu bete». Bere irudiko, «denbora eta forma aldeetik, herritarrok informazioa falta izan dugu; Udalaren webgunean zintzilikatutako informazioa berandu helarazia eta osatugabea izan zen». Honek diote: «kaltetu batek urriaren 9an izan zuen planaren berri, printzipioz, herrigune historikoa berantolatze proiektuaren inguruko parte-hartze prozesua aurkezteko Udalak deitutako bileran». Gainerakoek urriaren 13an jakin omen zuten, «zurumuru bidez». Kaltetu bat Herriko Etxera galdetzeraz joan zenean baieztatu omen zioten: «kaltetu horren kontsultaren ondotik, planaren informazioa Udalaren web orrian zintzilikatu zuten. Hori aunitz lehenagotik egin beharrekoa zen».

#### HASIERAKO ONESPENA

Joan den urrian, «inkestaren erantzunak eta Udalak ikusten zituen be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebeko Herrigune Historikoko Jabetza-Eskubideen Aldeko Plataformako kideak.

#### HELBURUA

«Legea betetzen ez genuelako hasi ginen planarekin. Berehalakoa ikusi genuen herriguneak eta herriak dituen arazoei aurre egiteko tresna ona izaten ahal zela».

**Xanti UTERGA**  
Doneztebeko alkatea

harrak kontuan hartuta, planaren zatirik garrantzitsuenak» ezagutarazi zituen Udalak batzar irekian. Gero, 15 eguneko epea ireki zuen ekarpenak jasotzeko eta epea pasatuta, 2017ko urriaren 30ean, udal batzarrek hasierako onspena eman zion plan bereziari. Azaroaren 9an argitaratu zuten Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta bi hilabetezko tarte ireki zuten alegazioak egiteko. Plataformatik salatu dutenez, «parte-hartze prozesuari aurkeztu genizkion alegazioei erantzun gabe, Udalak hasierako onspena eman zion planari». PSNtik, bertalde, «plana egin den moduaren kontra» daudela adierazi dute: «kaltetuekin solastu eta akordioa lortu beharko litzateke».

Alkateak, ordea, «prozesua era egokian» egin

#### BIZI-KALITATEA

«Planarekin herrigune historikoko bizi-kalitatea hobetuko da, baina egin den moduaren kontra gaude; kaltetuekin solastu eta akordioa lortu beharko litzateke».

**Doneztebeko PSNko zinegotziak**

dela dio, «azalpenak publikoki emanaz. Hobetzen ahal dela? Bai, baina heritarrok gurea hurbilek ukitu arte ez gara horrelako dinamikan murgiltzen. Gure helburua herritarrek, barrideak, merkatariek, turistak, inguruko herritarrek, oinezkoak... guztion artean oreka bilatzea da. Denon artean nolako herria nahi dugun erabaki behar dugu».

#### ETXEBIZITZAK ETA APARKALEKUAK

Bi alderdi nagusitu dituen plan bereziak: herriguneko etxebizitzak eta aparkalekuak.

Aparkalekuen kasuan, herriguneko lur pribatu batzuetan aparkalekuak eta espaloiak sortu nahi dituzte. «Espaloietan aparkatzen diren kotxeak kendu nahi ditugu», adierazi digu alkateak. Amezitia zeharbidean,

#### ZERBAITEN BEHARRA

«Doneztebeko karrikak kaotikoak dira eta aldaketa behar da. Doneztebe inguruko herrietako jendeari esker bizi da eta denon onerako pentsatu behar dugu».

**Natalia REKARTE**  
Doneztebeko merkataria

Mourges etorbidean, Kabrikari Nagusia eta Rosa Seminario karriken arteko bidegurutzan eta Inletzakardi eta Merkatarien Karrikaren arteko bidegurutzan aurreikusitako lanak.

Etxebizitzaren gairi ere heldu diote planean: «herrigune historikoan gero eta etxe huts gehiago dago, eta zaharberitzeko asmoa ttikia dute jabeek». Horregatik, planak etxebizitza bakoitzaren fitxa dakar, «bakoitzaren egoera eta noraino babestua daitekeen eta zer ez...». Utergak gaineratu digunez, «plana onartuta, Udalak ordenantza bat onartuko luke eta horri esker, jabeek %40 irits daitezkeen diru-laguntzak lortzeko aukera izanen lukete. Udalaren aurrekontuak ere ekimen hori babestuko luke».

#### APARKALEKUEN AURKA

«Aparkalekuak ez dira beharrezkoak. Ez da aparkalekuen arazoa; gizatasun, bide-heziketa eta errespetu falta baizik; kontzientziazioa kontua da».

**Jaime, Jesus M<sup>a</sup>, Marisol eta Itziar**  
Plataformako ordezkariak


Etxebizitzaren sailkapenari dagokion planaren zati hori ongi ikusten dute plataformakoek: «etxebizitzak babestu eta herrigune historikoa izateara berezia ematen ahal dio, eta kaltetutako familia guztiok hori nahi dugu».

#### APARKALEKUAK EZTABAIDAREN ERDIAN

Herrigunean «ia-ia» lur publikorik ez dagoela eta, ia aparkalekuak lur-eremu pribatuaren egitea aurreikusitako planean. Halere, alkateak «proposamenak direla eta oraindik aldaketak egon daitezkeela» azpimarratu du. Horrekin batera, «herriko plazei plaza erabilera eman nahi diegu, orain arte, planteatu ez diren guneetatik kotxeak kenduta, bertze erabilera baterako guneak sortuz».

Baina Plataformaren arabera, «ez da aparkale-

## Herrigune Historikoko Plan Berezian proposatutako aldaketak



**1** - Ameztia Zeharbideko eremu honetan izanen litzateke proposatutako lanik haundiena. 34 apartaleku plaza sortuko lirateke, eta Santa Luzia plaza, Ameztia zeharbidea eta Ameztia karrikan aparkatutako autoentzat aukera bat izanen litzatekeela uste dute. **2** - Mourges etorbidean, 14 apartaleku sortu nahi dituzte, baita espaloia egin ere. Espaloia eginda, arazo bat konponduko luketeela diote, frontoiak Mourges etorbidera duen irteeratik errepidera zuzenean ateratzea arrisksua dela iritzita. **3**. Merkatarien Karrikan aparkalekuak eta espaloia egin nahi dituzte, Intzakardiko bidegurutzearen ondoan. **4** - Karrika Nagusiaren eta Rosa Seminario karrikan arteko bidegurutzeara haunditu nahi dute. **5** - Estopiaziorik ez dela egonen aurreikusituz, Udalak aparkalekuak edo bertze lanak egiten erabiliko litzuzkeen lur pribatu horien jabeek trukean Aparan aldean bertze unitate bat hartuko lukete. Hala ere, plataformatik jakinarazi dutenez, «truke horiek legez kanpokoak» dira, eta «aparkalekuak eginen balira, lur horiek desjabetu egingen litzuzkete».

kuen arazoa; gizatasun, bide-heziketa eta herritarren arteko errespetu falta baizik; hitz bakarrean, kontzientziario kontua da. Herrigune historikoan zerbait egiteko Informazio eta Kontzientzario Plan bat beharko litzateke, guztiok jakin dezagun bortz minutu oinez ibiltzea ez dela inongo arazoa. Hartara, gaizki egingako aparkamenduak saihestuko genituzke». Gaineratu digunez, «herriguneko trafiko arazoak eta gaizki aparkatutako autoekin sortutako arazoak konpontzeko, logikoena herrigunearen inguruan aparkalekuak sortzea izanen litzateke, bertze herri aunitzetan egin duten bezala».

Kontzientziario falta horrekin ados dago PSN: «guztiok kontziente izan behar dugu etxean eta negozioen sarrerak erres-

petatu behar ditugula. Ezin dugu ateraino kotxean joan. Badira aparkaleku bezala egokituak diren tokiak, kiroldegi ondoan, Elizagibelan, Aparanen... Gaur egun ia hutsik egoten dira».

Bertzalde, herrigunetik kanpo ere Doneztebeko herriak dituen arazoei aterabideak bilatzeko lanean ari direla adierazi digu alkateak: «bertze auzoetan ere bertze lan gehiago aurreikusiak ditugu. Azken finean, herri osoko mugikortasuna eta antolakuntza kontuan hartu behar baitugu».

### ESPROPIAZIOAK BAI, EZ...

Planak lur pribatuei eraginen liekeen arren, espropiaziorik ez dela izanen nabarmendu dute Udaletik: «batzuei berriaren lur eremuetan eraikitzeko aukera emanen zaie, orain arte ez zutena.

Bertzeei, berriz, ustiapena garatzeke dagoen bertze unitate batean ematen zaie». Alkateak gaineratu digunez, «ez zen espropiaziorik egin nahi, jendeak hagitz barneratua duelako horigauza kaltegarria dela. Baina azkenean, ezarritako prezioan erostea da, eta prezioa ez du Udalak paratzen, Nafarroako Gobernuak baizik». Lur horien jabe batzuek desjabetzetzat jo dutela kontatu digu alkateak, nahiz eta «legalki hori horrela ez dela» onartu. Edozein moduz, hori «proposamena» dela dio Utergak, eta «desjabetzea nahiago duen jaberik baldin bada, horretara ere jo daiteke».

Plataformaren arabera, ordea, «baratze eta lorategiak herrigune historikotik kanpo dauden lurrekin trukatzeari legez kanpokoak da, eta Uda-

lak aparkalekuak aurreikusitako lurretan egiteko asmoarekin segitzen bado, barrideen lurrak desjabetuta egingen du».

### ETORKIZUNERA BEGIRA

Aitzinera begira, «planaren puntaren bat gauzatu eta etorriko diren udalei dokumentu interresgarri bat uztea» nahiko luketeela erran du Utergak: «Donezteberen etorkizunerako tresna izatea nahiko genuke».

Plataformak, bere aldetik, «bereziki ederra eta bakarra den herrigune historikoaren idiosinkrasia mantentzeko lanean segitu» nahi du eta Udalarekin akordio batera ere ailegatu nahi du, «herrigune historikoan aparkalekuak egiteko aukera bertan behera gelditu dadin. Hori delako plan honetan beharrezkoa ez den zatia. Ehunka urte dituzten

baratze eta lorategiak zementu eta aparkalekuez ordezkatzeari, herrigune historikoaren eta herriko ingurumenaren kontrako benetako atentatua da».

Iritzi horien harira, zera dio alkateak: «eskubide osoa dute desadostasuna adierazteko. Uler dezaket norberaren lurra ukitzeak haserre sorraztea, baina proposamen horiek herriaren onuragatik aurkeztu ditugu eta gustatuko litzaidake hori ulertzea, gure ikusmirara orokorragoa baita». Hortik aparte, alkateak uste du «orokorrean informazioa falta dela». Horregatik, «kezka duen herritar orori udaletxetik pasatzeko» eskatu die, «planaren inguruko azalpenak jasotzera. Ondotik, norberak bere iritzia izanen du, baina informazioa ahal bezain egokien jasotzea nahi dugu».



**Nire txanda**  
Maider IANTZI

## Infinitua

**D**enbora ez da bat, bi, hiru, lau... Baina irau-  
gitze data dute kotxeek. X kilometro, X ur-  
te. Telefonoak ere denbora zehatz baterako  
programatzen dituzte. Denbora ez da bat, bi, hi-  
ru, lau... Hori denbora erritmikoki kontatzea da. Ti-  
mothy Morton filosofoak dio-  
en bezala, unibertso osoan  
bila dezakezu seinatzeko  
zerbait, denbora deitzen ahal  
dizuna. Ez duzu aurkituko,  
egitan seinatzeko duena  
denbora bera delako. Den-  
bora ez da bat, bi, hiru, lau...  
Baina zer da infinitua? Iza-  
nen zinateke hilezkorra au-  
kera emanen balizute? -Ez.

«Baina zer da  
infinetua? Izanen  
zinateke  
hilezkorra aukera  
emanen  
balizute? -Ez»

Orduan bizitzak ez luke zentzurik izanen. Beti ni  
izaten? Aspertuko nintzateke, nazkatu... Nahiago  
zuhaitz bat izan. -Ba ni bai. Jakinmin handia dut  
eta badakizu zenbat ikasiko nukeen? Otik hasten  
ahalko nintzateke hainbat aldiz, pertsona bezala  
garatu eta hobetu... -Denbora ez da bat, bi, hiru,  
lau... Baina infinitua baino nahiago 500. Edo 100.  
100 urte bizita konforme ;-)

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Begia masaila trukean

**E**zkerreko belarri ondoan deabrua, eskuinekoan  
aingerutxo. 'Begia begiaren truk' dio batek  
mendeko eske masailak gorriturik. 'Bertze  
masaila jartzeko' eskatzen du bertzeak, begiak  
zuri-zuri. Bibliak ere bijoerentzako lekua badu non-  
bait, nola ez dugu bada guk zalantza izanen?  
Otxarkoagako hilketen moduko berriek jartzen  
gaituzte ispiluaren aurreko kontraesan horretan.

## Nabarmentzekoak



**Juanto APEZETXEA**  
Entrenatzaile onena 2017an

Asoal ligako Anaita-  
suna eskubaloi taldea  
gidatzen duen Oiergiko  
entrenatzailea 2017ko  
tekniko onena izendatu  
du Nafarroako Gober-  
nuko Kirol eta Gaztedia-  
ren Institutuak.



**Oian CANABAL**  
Igantzioko pilotaria

Hasiera bikaina eman  
dio urteari, Lizarrako lau  
eta erdiaren barreneko  
txapelketa irabazi baitu  
senior mailan. Txapela  
janzteko Mikel Lana  
menperatu behar izan  
zuen finalean, 18-9.



**Iratxe ETXARTE**  
Lesakako organujolea

Lesakako San Martin  
elizako organoa zahar-  
berritzea xede duen tal-  
dea sortu dute. Horre-  
tarako zenbait kontzer-  
tu antolatu dituzte eta  
hurrengo otsailaren  
24an egingen dute.

Atzera begira → 2008-I-17 • TTIPI-TTAPA 462. zk



### Arantxa Sagastibeltza leitzarra Urrezko Sudurra irabazteko lehian

Arantxa Sagastibeltza Leitzako sommeliera elkarriketatu zuen Ttipi-Ttapa  
duela hamar urte. «Sommelierra jatetxean ardoari dedikatzen den pertsona da.  
Informazioa ematen die bazkaltzera etortzen direnei», azaldu zigun. Espainia-  
ko Urrezko Sudurra txapelketaren finalean lehiatzeko txartela lortu zuen lei-  
tzarrak aipatu zigunez, «ardoak egunero probatuz ikasten da zein den ona eta  
zein ez den». Bere esanetan, «koloreak asko esaten du, gaztea den, krianza  
barrika pixka bat duen, erreserba den... Ardoa gaztetasunetik heldutasunera  
pasatzen da eta gero jaisten hasten da, okerrera egiten».

 **ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola, Nerea Bazterrika Publizitatea Usua Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Arkaitz  
Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Martin Bertiz,  
Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Jaione Ariztegi, Jaione Mindegia, Nerea Mortalena, Pierre Bastres

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

### 2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua



## Kolaborazioak

### Hil da Jainkoa

Joseba URROTZ TELLETXEA

**E**saldi horixe bururatu zitzaidan, hileta elizkizun jendetsu batean nintzela, elizako atean, hanka bat kanpoan nuela. Egia, ez nintzen apezak zionari so, ez bainuen aditzen ere, eliz atariko marmarra aunitz indartsuago baitzen. Horrexegatik ari nitzen burutazio horietan, alegia, han zegoen jendeak hil berria ezaguna zuelako joan zen bertara, baina ez zuen nonbait deus haundirik espero elizkizunetik. Eta ez zuen garai batean 'hala egin behar zelako', zigor mehatxupean bazen ere, egiten zen bezala, errespetua eta isiltasuna gordetzeko beharrik meza ari zen bitartean. Hor nonbait gogoan nuen Nietschek erran omen zuela 'hil da Jainkoa' hori, begiratu dut Wikipedian eta bertze batzuk ere aipatu omen zuten lehenago ere. Dena dela, haiek kristau Jainkoaren aitzakian osatutako moralaz ari omen ziren, harek ustez ezarritako moral hori non geldituko ote den Jainkoa bera desagertuarazten badugu.

Ongi ba, hil dugu Jainkoa, alegia, ikusi eta ikasi dugu ez digula berak konponduko nahitaez hil beharra, eta gainera bere ize-nean mendetan lotu eta izorratu gaituzte... Gorian bego.

Behar bada, honezkero, gaintitua dugu heriotza ezezagun horri genion beldurra, milaka urtetan itxuraz izan duguna. Gaur egun inguratu gaituen arrazionaltasun zientifikoak aspaldian espero genuen lasaitasuna eman bide digu: heriotzaren ondotik ez da deus, ez izan deusen itxaropenik, momentua gozatu, bizitu, oraintxe zoriontsu izan. Eta kitto. Ez bilatu deus haratago.

Baliteke, baina ni behinik behin konturatua naiz ez dela gauza makala momentua bizitzearen hori: gauzak diren bezala onartu, onak edo txarrak, biziak dakarkiguna onartu, arnasaldi bakoitza urre koxkor bat balitz bezala baliotu, gure barrengo isiltasun hortara begiratu, tenplu horretako argi ttiki horren aitzinean otoitz egin... Finean, ez ote gara oraindik ere beldur samar, biziak zentzurik ez duela ikusteko? Zentzua nonbaitera ailegatu edo joateko helbidea baldin bada. Akaso modernitateak Jainkoa hil dela baieztatu digu baina ordainean ez digu deus haundirik eman? Egunero burrunba haundia dugu inguruan: hau edo hura egin beharra, lana, umeak hazi, dirua irabazi, zorrak saihestu, otordua egin, telebistan albisteak ikusi, mugikor bidez atergabe konektatuak egon denekin... Zarata egin nahi dugu, ez dezagun gure barrengo isiltasun eta miseria beldurgarri hori entzun eta ikusi, hileta jendetsuetan elizatarian bezala.

«Finean, ez ote gara oraindik ere beldur samar, biziak zentzurik ez duela ikusteko? Akaso modernitateak Jainkoa hil dela baieztatu digu, baina ordainean ez digu deus haundirik eman?»

### Usteak nerabezeroan

Gabi GOIA IPARRAGIRRE

**N**erabezeroaren ezaugarri nabarmenetako bat lagun taldeak hartzen duen garrantzia da. Bere identitatea eraikitzeko ahaleginetan, orain arte umea izan den gaztetxoak, gurasoengandik bereizteko beharra sentitzen du eta talde bateko partaide izaten saiatuko da nola edo hala. Egoera honetan, taldekideek bezala jantzi nahi du, beraiek bezala pentsatu nahi du eta, ahalegin horretan, bere portaera taldearenera egokituko du. Ez da batere erraza! Zein da ematen dudan irudia? Nolako jokaera izanen dut? Onartuko naute naizen bezalakoa adierazten banaiz?

Nerabezeroa eta Gaztediari buruzko Sofia Erregina zentroak, 14 eta 19 urte arteko 2.514 neska-mutilen artean egindako ikerketan, euren artean onartuenak bezala agertzen diren rolak eta estereotipoak biltzen ditu bere txostenean. Hauetxek dira:

- Neskak sentiberak, goxoak, arduratsuak eta langileak dira, eta irudia zaintzen dute. Mutilak, berriz, dinamikoak, mugituak, autonomoak, ekintzaileak, posesiboak eta azalekoak.

- Bikotekidearen mugikorra begiratzea ohikoa da, ez da larria.

- Neskek urkoa ulertzeko gaitasun handiagoa dute, baita maitasuna emateko ere. Sakonagoak eta espiritualagoak dira. Mutilak, aldiz, kiroletan hobekak dira, ausartagoak, teknologia alorrean trebeagoak eta zailtasunei aurre egiteko gaitasun gehiago dute.

- Nerabeek uste dute nesken arteko harremanak gatzakatsuagoak direla; mutilenak, ordea, leialagoak.

- Neskekin errazago hitz egin daiteke familia, maitasuna eta harreman kontuez. Mutilekin kezka orokorrak konpartitzen dira: lagunak, ikasketak, lana...

- Nerabeen gehiengoak mutilak neska babestu behar duela uste du.

- Bikote harremanetan garrantzitsuena leialtasuna da.

- Sexua maitasunarekin lotzen dute emakumezkoek. Gizonezkoek ongi pasatzearekin eta beraien 'izaerarekin'. Batzuek eta besteek uste dute mutilak beti 'prest' daudela...

-Etorkizunera begira, bakoitzak bere familia eta diru-iturria izatea da garrantzitsuena.

-Matxismoa" bertze belaunaldietan ematen da, beraie-nean ez.

Poliki-poliki jendarte berdintsuago, anitzago eta askeago baten alde lanean ari gara. Itxuraz gero eta askeagoak gara eta elkarren arteko ezberdintasunak errazago onartzen ditugu. Baina erreala da aldaketa? Aurreiritzi eta usteek pisu handia dute gure pentsakeran eta jokaeretan, aunitzetan gu konturatu gabe. Bertzeak ez bezalakoa sentitzen denak sufritzen du eta indar handia behar da norbera den bezalakoa izanez aitzinera egiteko. Bertzeak errespetatzea eta gure burua errespetaraztean dago sekretua.

«Bertzeak errespetatzea eta gure burua errespetaraztean dago sekretua»



## Irakurleak mintzo

### Heriotzaren ataria dugu bizitza, eta bizitzaren atea heriotza

Ainara MAIA URROZ (Irun)

Ortzian lore bat sortu da, lurrera izar bat erori den une honetan.

Laino guzien azpitiak eta sasi guztien gaintik, gizon handia joateak bihotz-zimiko bat eragin dit, eta mundua desagertu zait ene baitan. Ene baitaratu naiz, eta emakumezko mundu txiki honetatik idazten hasi naiz haren hatsa behin hartu nuelako Senpereko Oxtikian 2001ean, hatsa botatzen dizuet goxo eta maitasunez, neure izate osoz, nahiz eta oraindik neure burua ez asko ezagutu. Ez dakit mundua gizon-emakumearentzat egina den edo gizon-emakumea munduarentzat.

Bide bazterreko olerkari xume garenontzat, behinik behin, gure helburua ez da poesia saltea, baina oroitzen naiz 2001eko apiril hartan Senpereko Hatsa Elkartean ezagutu berri nuen Joxanton Artzek umil nola erran zautan olerkigintza ogibide zuela, bere zentzu zabalene-

an edota metaforikoan. Olerkiaren funtsa norbere izaitea ematea zela erran nahi ote zidan horrekin?

Bide bazterrean hi eta ni kantari. Hemezortzi urteotan maisu isil izan dut HATSAREN POESIAren bitartez bere hitzekin Hartzabal handia, eta geroztik, urtez urte neure izaitea eta onena ematen saiatu naiz poetikoki, zentzu zabalean eta metaforikoan ama izaten saiatu naiz, funtsezkoa naizen hau ezagutzen joan naitzen neurrian. Artzek bere iluntasun-unea izan zuen 39 urtekin, eta nik ere adin bertu horretan hasi nuen neure bizitzako une kritikoa, hil ala bizikoa, eta orain 41 urterekin eta jakin dudalarik Artze olerkari hatsa-emailea hil zaigula, neure izaitea zuei guztiei emateko gogo bizia izan dut. Barka, beharbada, handinahikeriaz jokatzen badut, eta politikoki zuzena ez banaiz.

Ama hil zaigu. Non dira goxotasuna eta samurtasuna mundu ero honetan? Maite zaitut publikoki erratea bekatu den garaiotan, non da gure izaitearen funtsa, bihotza eta maitasuna?

Bihotzberritzen naitzela, argitaratu eta saldu gabe geratzen zai-

zikidan liburu guztiak ez dakit erreko ditudan, Artzek bezala, patxadaz eta soseguz ekin nahi baitut, bihotzari eta buruari kasu eginez. Ez zait gaur- gaurkoz zintzoa iruditzen orain arte idatzitako guztia ezkatzea edota erretea, soilik ados ez egoteagatik orain arte idatzi dudanarekin. Jendar-tean zer zabaldu beharko litzateke?

Zalantzez beteta nago, baina seguru dakidan bakarra da ene izaito osoz maite dudala...

### Martxoaren 3an Alboloteko espetxera

J.L. BARRIOS MARTIN  
(Granadako Alboloteko espetxetik)

Alboloteko espetxean gauden euskal preso politikoez hemen bizi dugun errealitatearen berri ematera gatoz. Gure kide Ainhoa Mujikak eta Agurtzane Delgadok sei hilabete baino gehiago daramazkite espetxeko isolamenduan

itxita. Gizonoi behartzen ez dizkiguten lanak (moduloko komunak garbitzea) egitera behartu nahi izan eta Ainhoa eta Agurtzane ez ezekoaren aurrean espetxeko zuzendariaren agindu matxista eta diskriminatzaile baten ondoren eraman zituzten isolamendura (gertatutakoaren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, Kalerak-Kaleraren sareko orria bisitatzera animatzen zaituztegu).

Gaur egun sortutako arazoari oraindik ez zaio inongo erantzunik eman, arazoa haunditu eta gogortu da zuzendaritzaren jarreraren ondorioz eta ez dirudi arazoa konpontzeko inongo borondaterik dutenik. Hori dela eta Alboloten gauden euskal preso politikoa gure desadostasuna adierazi beharrean gaude zuzendaritzak harturiko erabaki matxista, bidegabe eta zakarraren aurrean. Ondorioz borroka dinamika bat abiatu dugu jada; planteak, egun bateko itxialdiak, barauak, etab...

Arazoi horiek guztiengatik Euskal Herriko herritar guzietan laguntza dei bat egiten dizuegu, bakoitzaren neurriko ahalaginez Ainhoak eta Agurtzane jasaten duten egoerari irtenbi-

dea ematera bultzatuz: espetxeko zuzendaritza orokorrari bidaltzeko gutunak, zuzendariari bidaltzekoak, e-mailen bidaltzekoak...

Espetxe honetan bizi dugun egoerak argi adierazten du Euskal Herriko jendar-tearen eta espetxetan bizi dugun errealitatearen alde, Euskal Herriko gehien-go sozial eta politikoa gatazkaren ondorioen konponketarako bide-orriaren aldaketa eskatzen duen bitartean, espetxeko egunerokoan oraindik azken hamarkadetan jasandako neurri errepresibo berdinak pairatzen jarraitzen dugu. Espetxeko politikaren aldaketa beharrezkoa da eta espetxe honen zuzendari matxista eta autoritarismoa, XIX. mendean geratu behar da eta ez XXI. mendean.

Laguntza oro ongi etorria izango da eta laguntza eskaerarekin batera eskerrak eman nahi dizkizuegu arazo honen aurrean zuen laguntza eskaini diguzuen guztiei.

Bukatzeko, martxoaren 3an espetxe honetara martxa bat antolatua dago, eta denon animoekin Ainhoak eta Agurtzane jasaten duten egoerari irtenbidea emango diogu.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Duela hamar bat urte egin zen Lesakako elizako organoa zaharbertzeko bertze saia-kera bat, baina ez zuen segidarik izan. Oraingoan hainbat musikazalaren nahia betetzeko itxaropena daukagu. Organujole aunitz laguntzeko prest azaldu dira». «Denies Lacorre luthierrak aipatu zigun organo honekin altxor bat daukagula Lesakan gordea».

**Iratxe ETXARTE**  
Lesakako organujolea  
D.NOTICIAS 2018.01.28



«Denok dugu pasio bat txikitatik eta nirea betidanik pilotan jokatzera izan da. Beti gustatu izan zait eta zerbait gustuko dutunean, askoz gutxiago kostatzen da lan egitea. Hortaz, pribilegiatua izan naiz gehien gustatzen zaidana eginez ekonomikoki bizi ahal izan dudalako. Nere bizitzaren eskola izan da pilota, dena zor diot kirol honi».

**Abel BARRIOLA**  
Leitzako pilotari ohia  
D.NOTICIAS 2018.01.27

**11 galdera labur**

**Nor da Naiara Aizpuru?**

Gauzei buelta pare bat ematea eta esaldi, iragarki edota irudien mezu ezkutuz hausnartzea gustatzen zaion neska.

**Zein zaletasun dituzu?**

Egunetik egunera gehiago. Lagunartean eginiko ekintza oro zaletasun bihur daitekeela ohartu naiz.

**Makila eskuan, botak oinetan eta tontorra begietan...**

Txori eta zuhaitzek hobe jasaten dituzte nire umore txar eta kezkek. Ez hori bakarrik, mendia benetan da erakargarri, gozamenerako, lasaitasunerako, bitarteko.

**Nola bizi dituzu inauteriak?**

Gogotsu. Beti gustatu zait antzezta eta inauteriek horretarako aukera ederra ematen digute.

**Momentu bat aukeratzeko-tan...**

Etxe ba-koitzera ailegatzaren garen-koa.

Ateak za-balik ha-rra -pa-tzen

ditugu, zeharkatu eta sortzen den saltsa, lehena eta oraina, besta eta errespetua, barneko lasaitasuna eta kanpoko zalapata, denak bat egiten duen momentua.

**Akordeoa eskuan ikusi izan zaitugu...**

Eskuan ikusteak ez du erranahi jotzen nuenik... (irriz).

**Zer du Donamariak bertze herriek ez dutena?**

Bi ostatu eta biek itxiak, klausurakoak diren mojak 'klausura' hitzaren ikuspegia eraldatuz, auzo aunitz, baina herri sentimendu bera. Kontraesaneko kontzeptuak, herri bakar, elkartu eta anitzean bilduak.

**Zer falta zaio?**

Ez dugu perfekzioa bilatzen, ikuspuntuaren arabera, gauza aunitz edo deus.

**Inguruko xokorik politena?**

Ibaiteko errekan goiti hasi eta Garmendiko kaxkora bitarte edozein.

**Zerk egiten zaitu zoriontsu?**

Nire zoriontasunaren arduradun ni neu naizela sentitzeak.

**Amets bat?**

Gizarte hezkuntza ikasten ari nizen aldetik, nire buruarekiko kontraesana dirudien arren, gizartea hezitailerik behar ez izateara ailegatzera.



**Naiara AIZPURU → Donamariako gaztea**

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**KATEA BIKE**  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.  
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak  
2. eskuko bizikletak  
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218  
kateabera@telefonica.net  
ORBEA CONDA SCOTT BH TREK

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa  
• Kirol Fisioterapia  
• Osteopatia  
• Masaiaik  
• Trafiko istripuetan aholkularitza  
• Istripu eta osasun aseguruak  
• METODO BERRIA  
Umeentzako arnas fisioterapia  
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.info

## BERA

GIZARTEA → EGUBERRIETAKO KANPAINA

# 100 euroko erosketa- bonoen sariak banatu ditu Larun Haizpek

Bazkide diren  
dendetan  
erosketak  
egiteko

dako kanpainan 100 eu-  
roko sei erosketa-bono  
zozketatu zituen beze-  
roen artean. Dagoene-  
ko saridunak jakinarazi  
eta sariak banatu ditu  
merkatarien eta zerbit-  
zuen elkarrekin.

Eskuinetik ezkerre  
eta goitik beheiti, Loli

**TTIPI-TTAPA**

Larun Haizpe elkar-  
teak Eguberrietan egin-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ehuna euroko erosketa-bonoekin sarituak suertatu diren bezeroak.

Moreno, Juan Angel  
Urtxegi Shota, Agustin

Leonis, Gorane Artieda,  
Iñigo eta Juan Angel Or-

doki lesakarra izan dira  
sartuak.

ALTZARIAK ETA  
DEKORAZIOA**AMETS**

SUKALDE ETA  
PARETAKO  
ARMAIRUAK  
GUK EGITEN  
DITUGU

*¡Kontsulta iezaquzu!*

948 630 537

C/Sastrin 2,3,4 BERA  
amets@mueblesamets.com  
mueblesamets.com



KULTURA → OTSAILAREN 17AN

## Ternuako arrantzaleen bizipenak ikusgai eta solasgai

Rosa Arburua hizlari eta 'Arte al agua' dokumentala erakutsiko dute Kultur Etxean

### TTIPI-TTAPA

*Bortziritarrak Ternuan* izenburupean, arratsalde-pasa polita antolatu du Kultur Batzordeak otsailaren 17an. 18:00etan *Bortziritarrak Ternuako bakailao-arrantzansolasaldia* eskainiko du Rosa Arburuak euskaraz. Ondotik, Olivier Van der Zee-k zuzendutako *Arte al agua* dokumentala (gazteleraz) eskainiko dute. Sarrerak aitzinetik salgai daude. Agara prentsa dendan, 3 eurotan.

1941 eta 1960 urteen artean Bortziritetako 158 gizonak atera zuten kartilla Ternuara arrantzara joateko: 70 beratar, 55 lesakar, 17 etxalartar, 11 igantziar

eta 5 aranaztar. Gerra ondoko Bortziritetako ekonomia ahulean, Ameriketara artzain lanetara, Iratira eta Frantziara mendi-mutil; kontrabandoa; neskato-lanak; apaiz eta moja; edota Ternuara bakailao-arrantzara joan behar izan zuten gazte aintzek, bizimodua aitzinera atera ahal izateko.

### HITZALDIA ETA DOKUMENTALA

Berriki estreinatu den *Arte al agua* Pasaian bi zi den Olivier Van der Zee holandarraren dokumentala Beran ikusi ahal izanen da, otsailaren 17an, larunbata, eta horren aitzakian, dokumentaleko protagonistak bezala, Beratik itsasora lanera joan ziren gizonen aitortza egin nahi die Udalak.

Emanaldia edozein pertsonari irekia dago, baina, bereziki, dei egin diete arrantzale izandakoei bertaratu daitezen, eta dokumentalaren ondotik euren bizipenak



UTZITAKO ARGAZKIA

1941 eta 1960 urteen artean 70 beratarrek atera zuten arrantzara joateko kartilla.

kontatzeko aukera izanen dute.

Dokumentalaren aitzinetik Rosa Arburuaren hitzaldia izanen da, Kultur Etxean bertan, *Bortziritarrak Ternuan bakailao-arrantzangaia* hizpide hartuta. Rosa Arburuak *1940-1960 Bortziritetako Gaztiak* liburua argitaratu zuen

2005ean. Bertan, 1940 eta 1960 urteen artean Bortziritetik kanpo lan bila joan ziren gizonemakumeen bizipenak biltzen ditu liburuan, tartean Ternuara bakailao-arrantzara joandakoen. Liburuaren zati horren inguruko solasaldia eskainiko du EHU-ko irakasleak.

### FLASH

#### Zuhaitzaren Eguna

Berako Ehiza eta Arrantza elkarteak eta Mantalek otsailaren 17rako Zuhaitzaren Eguna antolatu dute. Goizeko 9etan emanen zaio hasiera Altxateko plaza-ziatik abiatuko den txangoari. Kotxez ere joateko aukera izanen da. Zuhaitzak landatu eta gero (aitzurra eramatea gomendatzen da), Altxateko plazara bueltatuko dira parte-hartzaileak, Ehiza eta Arrantza elkartearen ha- maiketako egiteko.

#### Bertako ekoizleen merkatua

Bertako ekoizleen merkatua egingen dute otsailaren 10ean, larunbatean 10:00etatik 13:30era Ricardo Baroja eskolako arkupeetan. Azoka hau hilabetero antolatzen hasia da Udala, hilabeteko bigarren larunbatean.



UTZITAKO ARGAZKIA

#### 'Origenes' antzezlan ikusgarria

Compagnie des Vents et Marées taldeak *Origenes* antzezlan eskaini zuen urtarrilaren 27an Kultur Etxean. 2016ko urriaren 24tik azaroaren 3ra Hendaia-ko konpainiak egonaldi artistikoa izan zuen Kultur Etxean. Hiru mediazio saio izan zituzten, memoria solasgai, San Jose zahar etxe eta Jubiloteka zerbitzuko lagunekin eta orduan hasi ziren antzezlan sortzen.

**MARITX**  
· Ingeniaritza elektrikoa · Boletin industria  
· Proiektu elektrikoak · Instalazio elektrikoak  
Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

**Goieko** DESINBERA  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK  
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTIZIOAK · DESARRATOITZEAK  
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kuku...  
eta arratoi xogutuz garbitu nahi baduzu daitez! Termita eta Pipien tratamendurak  
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

**Manterola**  
Tekniko instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
629 449 602

## LESAKA

GIZARTEA → OTSAILAREN 17AN ETA 24AN

# Arbolaren Eguna antolatu du aurten ere Beti Gaztek

Lehen egunean eremua garbitu eta bigarreanean arbolak landatuko dituzte

zentroaren parean Udalak duen Erabilera Aniztarako Aretoa (Koskontako Bidea 7, 2.) izanen dira eta interesatuek Osasun Zentroan bertan eman beharko dute izena.

## Bazkaria eta kontzertua

Buruztanka Gaztetxea ere inauterietan murgilduko da egunotan. Hilaren 10ean, larunbatean, 14:30ean bazkaria izanen dute Arranon eta ondotik mozorro sariketa. 19:30ean kontzertua izanen dute *Tokan2 La Polla* taldearekin. Hilaren 17an, berri, Gazte Eguna antolatzeko asanblada irekia deitu dute 12:00etan Buruztanka Gaztetxean.

## Bardoak Arranon

Bardoak bertso txapelketako saioa jokatu dute otsailaren 9an, ortziralean 19:00etan Arranon. Herriko *Unibertsolariak* (Eneko Fernandez, Iban Garro, Josu Sanjurjo eta Jon Silveira) eta Barañaingo *Barakiñak* taldeak aurrez aurre izanen dira.

### Aitor AROTZENA

Arbolaren Eguna antolatu dute otsailaren 17an eta 24an. Lehenbiziko larunbatean, eremua garbitu, piketeak sartu, zerrakura egin eta gisako lanetan ariko dira. Bigarreanean, berri, zuhaitzak landatuko dituzte. Helduak 08:00etan abiatuko dira eta haurrak 09:00etan.

Beti Gaztek, Irain eskolak eta Tantirumairu ikastolak antolatu dute ekitaldia, Udalaren eta ArcelorMittal lantegiarren laguntzarekin.

### MENDI IRTEERAK ETA IRAKURKETA TALDEA

Beti Gazte elkarteko mendi taldeak otsailaren 11n Aialdera irteera antolatu du eta irakurketa taldea otsailaren 17an elkartuko da.

### Estresa kudeatzeko tailerrak

Lesakako Osasun Zentroak estresa kudeatzeko hiru tailer antolatu ditu, otsailaren 20an, otsailaren 27an eta martxoaren 6an, 11:00etatik 12:30erabartera. Saioak osasun



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

## Nafarroako IV. Trikitixa jaialdia arrakastatsua

Euskal Herri osoko musikariak bildu zituen urtarriaren 27an Harriondoan ospatutako Nafarroako IV. Trikitixa jaialdiak. Joxemari, Jone eta Estitxu Elgorriaga anai-arrebek eta Egoitz Telletxeak bete zuten herriko ordezkariak, baina beiraiekin batera, Niko Etxart eta Kepa Junkera bezalako abeslari eta trikitilari handiak eta bertze hainbatek parte hartu zuten Estitxu Pinatxok eta Zuriñe Hidalgoak aurkeztutako emanaldian. Euskal Telebistak irudiak hartu zituen eta laster emanen dute jaialdia telebistan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bixente Igartzabal hirugarren izan da Tarragonako Maratoian

Beti Gazteko Bixente Igartzabal kirolariak ezuste handia eman zuen urtarriaren 28an Tarragonako Maratoian (Katalunia). Izan ere, lehen aldiz distantzia honetako lasterketa bateko podiumera igotzea lortu zuen, hirugarren postua eskuratuta, 425 korrikalarien artean. 42 kilometro eta 192 metroak egiteko bi ordu, 44 minutu eta 10 segundo behar izan zituen Igartzabalek. Iaz bezala, Pedro Nimogalizierra suertatu zen garaile (2:29.24). Proba nagusiaz gain, 30 kilometroko lasterketa ere izan zen igandean Tarragonan. Honetan, Jose Luis Iruztzun lesakarra aritu zen eta 125. postua eskuratu zuen, lasterketa bukatu zuten 309 korrikalarien artean. Bi ordu, 27 minutu eta 54 segundo behar izan zituen.

**KSAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikoko ultralasterra

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

**IRU BIDE**  
Erretgia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

**BEKO**

LÖREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 8TIK 13RA

## Inauteriak ospatzen hasteko dena prest dago herrian

Ortzegun gizenarekin hasi eta astearte inaute egunarekin bukatuko dira

### Iruñe ELIZAGOIEN

Otsailaren 8an, ortzegun gizenarekin, hasiko dira inauteriak herrian eta astearte inaute egunera bitarte giro ederra izanen da. Goizean gazte-oxak etxez etxe eskean ibiliko dira eta arratsaldean, berriz, Landagain eskolako ikasleek antzerkiak egingen dituzte herrian. Aurten, gainera, Arantzako eskolako ikasleak etorriko dira antzerkiez gozatzera.

14:30ean hasiko da ekitaldia plazan bertso bat kantatuz. Bertatik trikitilarien laguntzaz kalejiran eskolako atarira joanen dira, lehenengo an-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako haurrek antzerkia egingen dute.

tzerkia egitera. Bertan Haur Hezkuntzakoek *Bildotsaketa artaburuak* antzezlanak egingen dute. Ondotik, Lehen Hezkuntzako (LH) 3. eta 4. mailakoek *Haritzpen Musika desagertzearen misterioa* antzerkia eskainiko dute. Segidan, Domeneke atarian LH1. mailakoek *Eta nik zergatik ez?* antzezlanak ikusteko aukera izanen da. LHko 2. mailakoek ere



eginen dute beraien antzerkia: Maixterrean *ZZZ liztorrak* izenekoa. Lkasle zaharrenetara iritsiz, LH5. mailakoek antzerkia Iturraldeako atarian izanen da eta bukatzeko LH 6. mailakoena, *luzurgileak*, frontoian.

Antzerki batetik bertzerako tartetean hainbat bertso eta dantza izanen dira. Bukatzeko, Guraso Elkarteak eskainitako berendua izanen da frontoian guztientzat. Eskerrak eman behar dira egun hori aitzinera eramateko lanean aritu diren ikasle zein irakasleei, Guraso Elkarteari, Uda-

lari, trikitilariari eta ikustera hurbiltzen diren ikusle guztiei.

Igandean, Zaldun inaute egunean, kinto bazkariak izanen dira.

Astelehenean, berriz, herriko gazteak baserri eskean ibiliko dira egun guztian. Aurten goan denak elkarrekin talde batean egingen dute ibilbidea. Elutsa ostatuan pintxoak izanen dira eguna bukatzeko.

Astearte izanen da inauterietako azken eguna. Eguraldiak laguntzen badu, herriari itzulita emanen zaio karroza eta mo-zorroekin, 12:00etan pla-

zatik abiatuta. Ondotik bazkaria izanen dute Herriko Ostatuan.

Jubilatuek ere bazkaria izanen dute Larraburuan 14:00etan. Apuntatzeko otsailaren 8a baino lehen 948 635166 edo 664 387343 telefonora deitu behar da. 18:00etan hasita Eonin elektrotxarangak inauteriei akabera ezin hobe emanen die.

### Sagardotegira irteera

Herriko gazteek antolatuta, Zabala sagardotegira irteera egingen dute herritarrek martxoaren 10ean. Autobusa 13:30ean abiatuko da herri sarrerako aparkalekutik eta 04:00etan itzuliko da Hernanitik. Apuntatzeko 20 euroko seinalea jarri behar da Elutsan edo Herriko Ostatuan, otsailaren 23a baino lehen.

### Euskal Herriko mus txapelketa herrian

Urtarrilaren 27an Euskal Herriko mus txapelketaren kanporaketa jokatu zen Herriko Ostatuan. Zortzi bikote aurkeztu ziren eta Etxalarko sailkatuak Julen Telletxea eta Aritz Irazoki eta Imanol Telletxea eta Eneko Sanzberro izan ziren. Bi bikote horiek Euskal Herriko txapelketara joanen dira orain. Parte hartzaile guztiei ardo botila bana eman zitzairen.

Bertan parte hartu nahi eta ezin izan zue-nak laster Herriko Ostatuak antolatuko duen mus txapelketan izanen du aukera.

### Ba al zenekien

Joseba Olagarai herritarra Gaztea irratiko Dida saioan izanen dela asteazkenean 09:30ean? Nafarroako kontuak kontatuko dizkigu.

Bittiria plaza 8  
LESACA  
T. 677 606 292

**Gure Hularka**

**EKIALDEKO MASAJEAK**

ESPRES MASAJEA  
15 minutuz kendu lepo,  
sorbaldak, bizkar eta gerrialdeko minak  
10 euroren truke.

MINDFULNEESS jarduerak.  
Luzaketak, erlaxazio...

**USOA**  
Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214  
ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

**FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA**

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

TLP: 948 625 474

## ARANTZA

GIZARTEA → OTSAILAREN 22A

# Hazieraren inguruko tailerra antolatu du Guraso Elkarteak

Interesatuak aitzinetik eman beharko dute izena

## Nerea ALTZURI

Gaian aditua den Mirren Camisonekin hazieraren inguruko tailerra antolatu du Guraso Elkarteak otsailaren 22rako. Arratsaldean izan da, eta interesa duten guztiak parte hartzen ahaliko dute, Guraso Elkartekoa izan ala ez, eta guraso izan ala ez.

Hala ere, joan nahi duenak aitzinetik eman beharko du izena [arantzakogurasoelkartea@gmail.com](mailto:arantzakogurasoelkartea@gmail.com) helbidera idatzita edo 600 903057 telefonora deitu edo mezua bidaliz. Tailerrean apuntatzeko azken eguna otsailaren 15a izanen da.

## Arkupeak Elkarteko besta

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Arkupeak elkarteko bazkideak diren herritarrek



ARGAZKIA: AITZIBER ALMANDOZ

## Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

Euskal Herriko X. Mus Txapelketaren baitan, joan den ilbeltzaren 28an, Ekaitza Elkartean herriko kanporaketa jokatu zuten. Zazpi bikotek hartu zuten parte eta Xabier Iturria eta Imanol Mitxelena bikoteak irabazi zuen. Bikote bakoitzak bost ardo bana jaso zuten eta irabazleek Mikel Leiza herriko ekoizkearen oilasko bana ere hartu zuten sarritzat. Zorionak!

besta eguna izanen dute igande honetan, otsailak 11. 12:00etan meza izanen dute azken urtean hildako bazkideen omenez, eta 13:30ean Pabloenean bazkalduko dute.

Bazkalondoan mus txapelketa jokatu dute eta bikote txapel-dunak eta txapel-dunor-

deak bertze herrietako bazkideekin batera jokatuko den final nagusirako txartela eskuratu dute.

## Inauterien berri hurrengoan

Inauteriak bukatuta, gaugerero, inauterien ondoretik errekupeatuak izanen dira herritar

gehienak. Ttipi-Ttapa-karte honetan, ordea, heldu den aldizkarian eginen dugu inauterien errepaso, lerro hauek idazterakoan inauteriak oraindik hasi gabeak baitziren. Larunbat honetan, berriz, inauterietako kontuak egiteko bilduko dira Mozorro Zuriak.

## FLASH

### Eskolako berriak

Teknologia berrietan sakontzeko, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz eskolako tresneria berritzen segitzen dute eskolan. Bi ordenagailu berri eta bertze bi arbel digital dituzte orain.

### 'DENBORAREN JOANA'

Denboraren joana izenburupean, proiektu berria paratu dute abian. Izenak dioen bezala, gure herriak historian izan dituen aldaketak aztertuko dituzte: kultura, hirigintza, baserria, nekazaritza, lanbideak, hizkuntza, bizimodua... Maila eta adin guztiak parte hartuko dute, eta ikasgai guztietatik ekarpenak eginen dituzte. Familiak ere erakarri nahi dituzte eta guraso nahiz atautxi-amatxien parte-hartzea bulkatu.

### AURREMATRIKULAZIOA

Otsailaren 1ean hasi eta hilaren 7ra arte luzatu da aurrematrikulazio garaia. 2015ean jaiotako haurrek 3 urtekoen gelan hasteko aukera dute eta adin horretako zazpi ikasle aurrekusi dituzte heldu den ikasturterako. Kopuruaren arabera, 2018-2019 ikasturtean, 3 eta 4 urtekoak elkarrekin egonen dira eta 5 urtekoak bertze talde batean.

tanatorios  
**IRACHE**

24 ORDUKO TELEFONOA  
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
\*\*\*\*\*  
LOREA, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

**ERREKALDE**  
OSTATUA

PLATER KONBINAITUAK  
PINTXOAK  
BOKATUAK

TFBNA: 948 630 259  
BERA

GIZARTEA → URTEKO BATZARREAN AUKERATUA

## Iñaki Portu izendatu dute Biltoki elkarteko presidente

Mus eta partxis txapelketetako finalak larunbatean jokatuko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Illbeltzaren 27an egin zen Biltoki Elkartearen bazkideen urteko bilera nagusia. Hasteko, 2017an antolatutako ekintzei eta izandako gorabeherei errepasoa eta urteko kontuei gainbegiratu eman zitzaizkien. Egoitzari dagokionez, komunak ezinduentzat egokitzeko eta biltegia txukuntzeko egindako lanak izan dira 2017ko ekintzarik aipagarrienak. Bertalde, orain arte aritu den garbitasunaren arduradunak, hautagai bakarra izanik, berteze urte batez segituko du.

### JUNTA ALDATU DA

Urteroko moduan, juntako lagunak erdiak

aldatzeko bozketa egin zen azkenean. Roberto Txoperena, Maite Zelaieta, Joxe Mari Mitxelena, Juan Ramon Retegi, Bea Lizardi eta Mikel Beginori egokitu zitzaizkien ateratzea, biltokiko lana bete ondotik. Aukeraketaren ondotik horrelaxe gelditu da junta hurrengo urterako: Iñaki Portu, lehendakaria; Leire Taberna, lehendakariordea; Adur Yanci, idazkaria; Iker Gonzalez, idazkari-laguntzailea; Jaione Sein, diruzaina; Idoia Bereau, diruzain-laguntzailea; eta, azkenik, Lourdes Etxeberria, Ana Loiarte, Eneko Telletxea, Luis Almandoz, Rexu Irigoien eta Lander Sein izanen dira bokalak.

Eratu berri den junta honek ez du lokartzeko astirik izanen, mus eta partxis txapelketaren finalak otsailaren 10erako prestatuak baitaude. Arratsaldeko 7etan hasiko dira finalak eta arratseko 9ak aldera izanen dute afaria.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Biltokiko lehengo eta oraingo juntako kideak, elkarrekin, Beheitan, ezkerreko argazkian, Iñaki Portu presidentelari Pa.



### Kantariak Giltzarri Abesbatzara

Jakina denez, abenduan eman zuen bere azken kontzertua Igantziako Abesbatzarak. Herriko martxa alde batera utzi gabe, hemendik aitzinera guttienez lehen jaunartzetako eta bestetako meza kantatzen jarraitzeko asmoa badaukate. Martxoaren 3an Inurrieta Upategira eginen duten bisitarekin itxiko dute taldearen ibilbidea. Euretako hamar Giltzarri Abesbatzarekin entsaiatzen hasiak dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Oian Canabal txapeldun Lizarran

Hasiera bikaina eman dio Oian Canabal Merkatenekoak 2018ari, jokatu berri den Lizarrako lau eta erdiaren barreneko txapelketa irabaztea lortu baitu, senior mailan gainera. Txapela janzteko Mikel Larena menperatu behar izan zuen, 18-9.

**sarobe**  
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo  
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99  
www.sarobe.net

**ola**  
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

www.olasagardotegia.eus TXOTX GARAI A IREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

WhatsApp icon

744 484 361

ttipi-ttapa

# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 26TIK 28RA

## Bikain joan dira aurten ere inauteriak

**Maider PETRIENA**

Inauteriak giro bikainean joan ziren. Urtarrileko azken asteburua paregabea izan zen herriar eta hurbildu ziren guztientzat.

Ortzirale goizean eman zieten hasiera inauteriei gazteek Arizti-gain kanpinean egin zuten gosariarekin. Bi taldetan banatu eta baserrietara eskean ibiltzera joan ziren, Joxe Angel eta Modesto akordeoilariarekin. Ortzirale arratsaldean eskolako irakasle eta ikasleen kaldereroek iragarri zituzten inauteriak. Agerralde akordeoilariarekin dantza egiteko aukera izan zen eta gauean, emakumeen 24. afa-riaren txanda izan zen.

Larunbatean ere gazteak herrian eskean ibili ziren. Arratsaldean disko besta izan zen Ulibeltzak Elkartean.

### KARROZA DESFILE IKUSGARRIA

Igandea, egun paregabea izan zen, karrozen desfilearekin. Lehen hiru karrozek salda (400 litro inguru), tortilla (150 arraultze-dozena), gaztainak, ardoa (150 litro) eta taloak gaztarekin eskaini zizkieten ikusleei. Hauen ondotik, sardina-saltzaileak, arrantzaleak eta txikiteroak; Mexikoko Hildakoen Eguna gogoratzen zuen karroza; Hawaiko hondartza; komun handi bat, kaka eta guzti; golf zelaia eta golfistak; Moskuko Plaza

Gorria, bere kosako eta ejerzito gorriko militarrekin; ipotxen karroza bere onddo-etxearekin; Julio Vernerren *Munduko Itzulia 80 egunetan* liburua irudikatzen zuten karrozek munduko hainbat txokotara hurbildu zituzten bisitariak, Wiily Fog eta Rommy printzesarekin batera: Frantzia, India, Londres, Egipto... Hauen ondotik, Hamingo txirularia bere saguekin eta Minions pertsonaiak ageri ziren, desfilea ixteko.

Urteroko zozketa ere egin zuten. Aurten ez zen zerririk, baina horren orde, bi magra zozketatu ziren eta Hondarribiko Xalbador Gonzalez eta Urtasungo Marialen suertatu ziren sarrituak. Bildotsa Elizondoko Aaron Altzugarairi egokitu zitzaion.

### Arkupeak elkartearen besta

Arkupeak elkarteko herritarren besta otsailaren 25ean ospatuko dute. 10:00etan meza izanen dute, 11:00etan mus txapelketa Arizti-gain kanpinean eta bazkaria. Apuntatzeko interesa duenak Juan Antonio delegatuari er-rran behar dio.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL ETA MAIDER PETRIENA

Igandeko karrozen desfilea ikusgarria izan zen, baina aitzinetik gazteak ibiliak ziren baserri-erreserri eskean eta emakumeek ere afa-ria egin zuten 24. aldiz.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIENA

### Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa Ulibeltzak-en

Euskal Herriko Mus txapelketako kanporaketa urtarrilaren 20an jokatu zen Ulibeltzak Elkartean. 7 bikotek parte hartu zuten eta ondorengoak izan zen sailkapena: 1. Ines Obregozo-Pattre Galtzagorri, 2. Jose Mari Arretxea-Jose Martin Agirre, 3. Raket Urtxegi-Maxux Iriarte eta 4. Josune Agirre-Julen Ibarra.



KULTURA → URTARRILAREN 12AN

## Otsaileko kultur agenda anitza eta adin guztientzat egokia da

‘Zirko familian’ tailerrak hilaren 17 eta 24an eginen dituzte gimnasioan

**Marga ERDOZAIN**

Inauterietako egitarauaz gaiz, eskaintza zabalatu du herritako otsailerako: zirko tailerrak, antzerkia, zinea, ikastaroak, sormen tailerra, ipuin txokoa...

*Zirko familian* tailerrak otsailaren 17 eta 24an gimnasioan antolatuko dira, goizeko 11:30etik 13:00etara. Izena emateko 659 797195 (Janire). 5 euro tailerreko eta familiako ordaindu behar da. Ipuin txokoak ere hilabete honetan ez du atsedenik izanen, hitzordua asteartetan izanen da, goizeko 11etan liburutegian. Aurtengo inauterietako otsailaren 8tik 10era ospatuko dira (ikusi 702. zenbakiko gehigarria).

Sormen ikastaroak ere otsailaren 15ean izanen du hilabeteko hitzordua.

**ZINEMA EMANALDIK OTSAILAREN 11 ETA 25EAN**

Erreka guraso elkarrekin antolatutako zinema emanaldiak bi egun horietan izanen dira, arratsaldeko 4:30ean.

**TEKNIKA HIPOPRESIBOEN IKASTAROA**

Tailer-ikastaro honek 4 ordu izanen ditu eta otsailaren 16 eta 23an (19:30etik 21:30era) Herrigunean burutuko



ARYTXIBOKO ARGAZKIA

### Josetxo Ezkurra Memorialean izena emateko epea zabalik

Erreka elkarteak hogeita zortzigarren aldiz antolatutako Josetxo Ezkurra Memorialeko pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu du. Eskuz banaka eta lau eta erdiaren barrenean jokatuko den txapelketan, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilotariak eman dezakete izena otsailaren 18ra bitarte. Horretarako, [salaae@gmail.com](mailto:salaae@gmail.com) helbide elektronikora idatzi behar da eta izen emateko orrian, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat adierazi beharko dira. Txapelketa martxoaren 11n hasiko da eta maiatzaren edo ekainean jokatuko dituzte finalak. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da eta kanporaketa moduan jokatuko da. Iganeko goizez jokatuko dira partidak. Argazkian, joan den urteko finalen ondotik, sari banaketa.

da. Bego Viela fisioterapia uroginekologian adituak emanen du.

**ANTZERKI EMANALDIA**

*Amico on the beach* antzerki emanaldia otsailaren 18an, arratsaldeko 7etan eskainiko dute.

Ion Amico eta Txori Amico (Ion Barbarin eta Txori Garcia) keinu eta mugimenduz betetako ikuskizun honetan murgilduko dira. Emanaldi hau adin guztietako gazteentzat egina da (5 urte 105 urte bitartekoentzat). Musika eta umorez, bi pertsonaia

bitxi hauek opor bereziak pasako dituzte: surfistak, begirale, boxeolariak, arrantzale edo igeriketa sinkronizatua egiten dituzten erreginak bilakatuko dira. Sarrera debalde izanen da.

**BIDAIA BIDEOAK IKASTAROA, OIER FUENTESEK ESKAINIA**

Mugikorrarekin edo argazki kamerarekin bidaia bideoak ikasteko aukera izanen da. 12 orduko ikastaroa antolatuko da, lau saio izanen dira eta bakoitzak 3 ordu izanen ditu. Oier Fuentesek emanen du

(telekomunikazioetako ingeniaria, ikus-entzuzko freelancea [katu-bi.eus](http://katu-bi.eus) webgunean).

Istoriak bideo bidez kontatzen ahal dira, modu erraz eta txukunean. Bideoak, sentimendurak adierazteko, artea lantzeko zein talde-lanean aritzeko aitzakia dira: ongi pasatzeko aitzakia. Apuntatzeko 618 485567 telefonora deitu behar da eta prezioak honako hauek dira: errolatuak 30 euro eta ez errolatuak 35 euro. Apuntatzeko epea otsailaren 14ra arte zabalik egonen da.

**FLASH**

### Uholdeen aurkako planaren aurkezpena

Nafarroako Gobernuak, udalarekin batera prestatutako plana behin homologatua eta Udal Batzak onartuta, herritarrei aurkeztea falta da. Doneztebarek aukera izanen du te plan honen nondik norakoak ezagutzeko. Hitzordua otsailaren 21ean (asteazkena 19:00etan Herrigunean izanen da. Isabel Elizalde kontseilaria, Babes Zibileko arduradunak baita Nafarroako Ingurumen Kudeaketako teknikariak bertaratuko dira. Aurkezpena osatzeko, eta herritarrek plan hau eskura izateko, Udalak azalpen eta aholkuekin argitaratutako eskuorria etxe guztietara igorriko du.

### Euskaltegiko matrikula zabalik

Ikasturte honetako bigarren matrikulazio epea zabaldu du euskaltegiak. EGA edo C1 ateratzeko ikastaroan izena emateko aukera bada (larunbatetan 4 orduko ikastaroa). Horretaz gain, auto-ikas-kuntzaren bidez (on-line) ere gainerako mailetan izena ematen ahal da. Argibideak 948 451555 telefonoan edo [malerreka@ika.euskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ika.euskaltegiak.eus) helbidera idatziz.

### Hasiberriendako bertso eskola

Mankomunitateak antolatutako ikastaroa 10 ordukoa izanen da. Matrikularen prezioak honako hauek dira: 20 euro; langabe eta ikasleek, 10 euro. Lekua eta ordutegia partaideen artean zehaztuko da.

# ITUREN-AURTITZ-ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → ALDARRIKAPENEN INAUTERIAK

## Urtetik urtera gero eta joaldun gehiago dira inauterietan

Bisitari aunitz bildu dira aurten ere inauterietan

### TTIPI-TTAPA


Eguzkiaren goxotasunarekin, joaldunen pulunpasoinuarekin eta karroza eta mozorroen harat honatekin giro ederrean joan ziren hain bereziak diren inauteriak. Kritikak kritika, sakaketak ere bai tartean, iturendar, zubietar eta aurtiztarrak ez ziren etxean gelditu, eta hainbat egunez besta giroan murgildu ziren.

Ortzegunarekin hasi ziren inauteriak eta asteburuan ez zen joare soinuak eta otordurik faltatu; puska biltzen ere ibili ziren.

Astelehenean, bakoi-tzak bere herrian ederki gosaldutik, joaldun, mozorro eta karro-

zak Iturenen elkartu ziren. Joaldun kuadrilla haundia bildu zen, 88 guztira: Zubietako 32 joaldun (28 heldu eta lau haur), Aurtizko 22 joaldun (20 heldu eta bi haur) eta Iturengo 34 joaldun (24 heldu eta hamar haur). Karroza eta mozorroek ere ez zioten hitzorduari hutsik egin, eta horietan, bertzeak bertze, inauteriak «errespetatzeko» aldarrikapenak egin ziztuzten. Eguraldiak ere hutsik egin ez zuenez, jendetza bildu zen Iturengo ikuskizuna ikustera.

Asteartean, berriz, Zubietan bildu ziren joaldunak, mozorroak eta karrozak. Guztira 62 joaldun elkartu ziren: 14 aurtiztar, 18 iturendar eta 30 zubietar. Zubietan ere gisa aunitzeta-karrozak eta mozorroak atera zituzten, eta tartean, aldarrikapen mezuak ere bai.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA ETA IZASKUN ZUBIALDE

Eguraldia lagun, giro ederrean joan dira inauteriak Ituren, Aurtitz eta Zubietan. Ez da umorerik faltatu.

**BEROPEL**  
 egurrezko pellets  
 ECHEVESTE HNOS. SL  
 T. 948 637 232 • 618 264 654  
 31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250  
 info@echevestehermanos.com  
 www.echevestehermanos.com

**IKASTAROA**  
**MARGO 2018** ZATOK MARGOTZERA  
 ESPERIENTZIA EZ DA  
**GAZTEAK (9 urtetik Aurrera), HELDUAK (adin guztiak)**  

ELIZONDO/Asteartea	Helduak 19:00-21:00
DONEZTEBE/Asteazkena	Gazteak 15:00- 16:30 Helduak 16:30-18:00
ITUREN/Ortzeguna	Gazteak 17:00-18:30
BERA / Ostirala	Gazteak 16:30-18:00 Helduak 18:00-19:30

**ARKUPEAK**eko bazbideek **PREZIO BEREZIA**  
 Iciar Mikelperizena  
 Tfñ: +34 661 010 416 
  
**BERTZE AUKERA** **MARGOTU ZURE KUADROA SAIO BATEAN**  
 EMAITZA BIKAINAK Ezin bazara klaseetara etorri edo ta opari bat egin nahi baduzu!

**TTIPI-TTAPA**  
**ALDIZKARIA**  
**SARE SOZIALETAN**  
**facebook**  
 www.facebook.com/ttipi.ttapa  
 www.facebook.com/ttipi.eus  
**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**

# ITUREN-AURTITZ-ZUBIETA



1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

**Merkealdia**

**Funda nordiko eta edredoietan espezialistak**  
edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

# URROZ

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 9AN ETA 10EAN

## Inauteriak asteburu honetan ospatuko dituzte

Ortziraleko afariarekin hasiko diren arren, larunbata izanen da egun handia

**Jaione ARIZTEGI**

Ailegatu da inauterien data bertze urte batez, eta dagoeneko bakoitzak prest-prest du bere mozorroa. Ortziraleko afariarekin hasiko dira inauteriak, baina larunbata izanen da egunik handiena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazkiko neska-mutil kuadrilla egun baserriz baserri ibiltzen da

Urtero bezala, haurrak etxez etxe ibiliko dira herrian eta gazteak karrora igo eta base-rietan barrena bapo jan eta edanez igaroko dute eguna, herria kolorez eta umorez beteko dutelarik. Horrez gain, karroran ibili ez direnentzat

afaria izanen da Herriko Ostatuan, eta gazteak buelta akitzerakoan denek bertan eginen dute topo. Afalondoan musikaren doinupean dantzan eta kantuan ibiltzeko aukera izanen dute eta segur aski aunitzendako igandean akituko

dira inauteriak.

### Jaiotza

Urte berriarekin batera, haur bat sortu da herrian. Urtarrilaren 18an jaio zen Ibai Matxiñena Barberena. Lerro hauen bitartez zorionak eman nahi dizkiegu gurasoei.

## NARBARTE

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7TIK 10ERA

## Mozorro bestan murgildu dira herritarrak

Larunbateko mozorro afarian mozorro originalenak sarituko dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Otsailaren 7an, arratsaldean, herriko ttiki-  
nak, mozorroak jantzita eta gurasoak lagun, ba-

serriz baserri ibiltzekoak ziren. Biharamunean, ortzegun gizen egunean, eskola koloreztatzeko tenorea izanen dute. Eskolako ikasleak, ipuinetako pertsonaiak gai dituztela, herrian barna ibiliko dira. Ondotik, haur, guraso eta irakasleek Herriko Ostatuan bazkalduko dute. Bazkalondotan Orakundeko jokoez gozatzeko tenorea iza-



UTZITAKO ARGAZKIA

Egunotan mozorroturik ibiliko dira Narbarteko gazteak.

nen dute. Bertzeak bertze, aulki jokoan jolastuko dira eta begiak tapatuta dituztela, oilarraren arratsaldeko mereduekin borobilduko dute eguna. Ortziralean, otsailaren 9an, gazteek hartuko dute lekukoa, mozorro afaria eginen

dutelarik. Era berean, mozorro lehiaketa eginen dute. Maiordomoez, Itxaso Iriarte eta Yous-effek, hiru mozorro originalenak aukeratzeko epaimahaia osatuko dute eta afalondoa DJ Entarak girotuko du. Aunitzek biharamunera arte luzatuko dute gaba.

Larunbatean, indarrak berrartzeko 10:00etan gosaria izanen dute. Bapogosaldua, Itxaso eta Irati trikitalarien musikaren doinupean baserri baserri ibiliko dira, iluntzera arte. Gauean helduek, etxez etxe ibiltzen ez direnek, afaria eginen dute.

EUSKARA → OTSAILAREN 14A ARTE APUNTA DAITEKE

## Heldu hasiberriendako bertso eskola antolatu dute

Hamar saio izanen dira eta lekua, eguna eta ordua partaideek zehaztuko dituzte

rraoko Bertsozale Elkar-teak, elkarlanean, heldu hasiberriendako bertso eskola ikastaroa antolatu dute Malerrekan. Hamar saio izanen dira eta lekua, eguna eta ordua izena ematen duten partaideen artean zehaztuko dituzte.

Izena emateko 948 451746 telefonora deitu edo [euskarazerbitzua@malerreka.info](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.info)

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak eta Nafa-



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE MINDEGIA

### Oizko inauteriak ospatu dituzte ilbeltzaren 20an

Oizen inauteriak ospatu zituzten ilbeltzaren 20an. Larunbat goizean elkartean gosaria egin zuten. 11:30 aldera haur gazte zein helduak denak mozorrotuta etxez etxez ibili ziren Agerralde akordeoilariarekin. Egurdian bazkaria izan zuten herriko elkartean, eta goizean iritsi ez ziren etxeetara bisita egin zuten arratsaldean. Goizean eguraldiak ongi iraun zuen arren, arratsaldean euria hasi zuen. Halere, eguraldi kaxkarrari aurpegi alaia jarri eta gauean afaria izan zuten Herriko Ostatuan. Inoiz baino jende gehiago animatu zen mozorrotzera eta etxetan barna ibiltzera. Beraz, giro bikainean joan ziren inauteriak.

cal.org helbidera idatzi behar da, otsailaren 14a

baino lehen. 20 euro ordainduko da matrikula

(ikasle zein langabeek, aldiz, 10 euro).


# DONEZTEBE

## Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

### Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai



Ez galdu aukera!

- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin 
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

Informa zaitez

**EZKAIN ERAIKUNTZAK**  
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

**629 951 170**



**ZURE BEHARRIN ARABERA,**  
2 eta 3 logelako etxebizitzak.  
Zuk erran eta guk egin!

**58 m<sup>2</sup>koak:**  
sukaldea/egongela, 2 logela, 2 komun.

**74 m<sup>2</sup> eta 90m<sup>2</sup> ingurukoak:**  
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.

**135.000 €tik goiti**

**LOKALAK** ere baditugu,  
txoko, garaje edo  
lokal komertzialak egiteko



EUSKARA → ELIZONDOKO ZAHAR-ETXEAN ETA DONEZTEBEKO HERRIGUNEAN

# Euskalkide egitasmoa antolatu du aurten ere Solaslagunak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskalkideak Elizondoko zahar-etxean, 2016an.

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ikasurtean zehar, hainbat saio jarriko ditu martxan Solaslaguna egitasmoak. Urteko lehenbizikoa hau izanen da: Euskalkide aldaera Elizondoko zahar-etxean eta Doneztebeko herrigunean (Santa Luzia plazan). Tokian tokiko mintzamolde jatorrak ikasteko eta horretan aritzeko espazioak sortu nahi ditu Baztan-Bortzirak-Malerrekako Solaslaguna egitasmotik abiatu eta Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zahar-etxearen eta Arkupeak jubilatuen elkartearen laguntza izanen duen ekimenak.

Helburu zabalago batzuetan ere kokatua dago, hizkuntza portae-  
ran eragitea, adineko pertsonekin hartu-emanak sortzea eta ondare inmaterialaren erama-leak diren heinean, horien esperientziez ikas-tea, berteak berte.

Elizondoko Francis-co Joaquin Iriarte za-har-etxean hiru saio egi-nen dituzte otsailaren 2, 16 eta 23an, ortzirale-an, 17:00etatik 18:00-  
etara bitarte.

Donezteben, aldiz, bi saio egingen dituzte, o-tsailaren 17an eta 24an, larunbatetan 11:00eta-tik 12:00etara.

Izena emateko 610 920673 telefonora dei-tu (Ana Aroztegi) edo [solaslaguna@topaguna.eus](mailto:solaslaguna@topaguna.eus) helbide elektro-nikora idatzi behar da.

**HUNTZA**  
ERTZETATIK  
+ ANITA PARKER

Otsailak 17 larunbata 23:00 12€/15€  
+ banaketa gastuak

**ELIZONDO Lur Dantzalekua**

Sarrerak: Elizondo (Mendi ostatua), Doneztebe (Titi ostatua), Oiartzun (Laija taberna)  
Online: [www.ticketea.com](http://www.ticketea.com)

Prensa eta komunikazioa:  
Koldo Rodriguez Akarregi  
652 444 444 | [promo@maukamusik.com](mailto:promo@maukamusik.com)

639 760 466 / 618 627 931  
[www.maukamusik.com](http://www.maukamusik.com)  
[info@maukamusik.com](mailto:info@maukamusik.com)

**MAUKA**  
MUSIKAGINTZA

[h](https://www.facebook.com/huntzamusikataldea) [h](https://www.facebook.com/huntzamusikataldea) [h](mailto:huntzamusikataldea@gmail.com) [h](mailto:huntzamusikataldea@gmail.com)

# ARKUPEAK

GIZARTEA → URTARRILAREN 28TIK MARTXOAREN 4RA

## Elkarteko kideen herriz herriko besta eta bazkariekin hasiak dira

Bien bitartean, Azkaine eta Baionara 118 lagun joanen dira, 2018ko bidaiari hasiera emanez

### Fernando ETXEBERRIA

Urtero bezala, aurren ere, herriz herriko bestak eta bazkariak ospatuko dituzte Arkupeak elkarteko kideek. Herri batzuetan hasiak dira dagoeneko; bertze batzuetan, berriz, datozen egunetarako aurreikusitako egunen zain daude. Bien bitartean, 2018ko bidaiari egiten hasiko dira.

Eratsunen izan zuten lehendabiziko hitzordua, urtarrilaren 28an. 30 lagun bildu ziren 12:30ean elkarteko kide hildakoen omenez mezarajoa teko. Ondotik, Elizetxan bazkaldu zuten. Bazkalondoa mus txapelketa ospatu zuten, Migel Baleztena eta Juanitiko Estanga bikotea gailendu ziren, Antonio Telletxea eta Calixto Estangari irabaziz. Aitzitik, Elizetxeren behin-betiko itxieraren ondotik, heldu den urtera begira, berriz ere, Ezkurrara joan beharko dute eratsundarrek.

Otsailaren 3an, berriz, Oronoz-Mugairiko Urgain jatetxean bildu ziren Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Arraioz, Oronoz-Mugairi, Oieregi, NARBATE eta LEGASAKO elkarteko kideak. Horiek ere, mahaiaren bueltan karta jokoetan



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Eratsunen izan zuten lehendabiziko hitzordua, urtarrilaren 28an.

aritu ziren, mus txapelketa egin zutelarik. Biharamunean, otsailaren 4an, Etxalarkoek hartu zuten lekukoa, Herriko Ostatuan izan zutelarik hitzordua.

Aranztarrek besta eguna otsailaren 11rako, iganderako, dute aurreikusita. 12:00etako mezarekin hasiko dute eguna, eta Pablonean bazkaldu ondotik, musean aritzeko aukera izanen dute. Elizondon, berriz, musa otsailaren 14an, Saioa ostatuan, izanen badute ere,

biharamunean 12:30ean meza eta 13:30ean Santxotengan bazkaria izanen dituzte.

Baztangoitiar, urdazubiak eta zugarramdiarrak Arizkun izanen dute topagunea, otsailaren 16an. 12:30eko mezaren ondotik Etxeberria jatetxean bazkaldu dute. Musean aritzeko aukera, aldiz, bezperan izanen dute, 15:00etan.

Egun berean Elgorriagako Ostatuan 16:30ean Zubieta, Ituren eta Elgorriagako

erretiratuek musean aritzeko aukera izanen dute. Aitzitik, bazkaria igandean, hilaren 18an izanen dute, Hilarionen.

Bien bitartean, Leitza, Areso eta Larraungoek 11:00etako meza eta Sagastiko bazkari az gozatuko dute, Leitza. Musa, ordea, otsailaren 10ean izanen dute, 18:00etan, elkartean.

Irungo, Berako eta Iparraldeko kideak Berako Zalain jatetxean bazkalduko dute, otsailaren 18an. Doneztebe,

Donamaria, Gaztelu, Oiz eta Urrozekoek, berriz, Doneztebeko Belarran. Bazkalondoa karta jokoan murgilduko dira. Sunbildarrak hurrengo astean, hilaren 25ean bilduko dira, Ariztigain kanpinean. 11:00etan izanen dute musa, eta ondotik, 14:00etan bazkaria.

Azkenik, ezkurarrak martxoaren 4an Margarita Juanotenaren heriotza oroitarazteko bilduko dira, urteko hasiera samina, ahal den neurrian, gozotzeko.

### Bidaiak

Otsailaren 22an hasiko dituzte 2018ko bidaiak, Baionara eta Azkaingo oihal fabrikara joanen direlarik. Lehendabiziko ateraldi honetarako 118 lagunek eman dute izena, eta beraz, bi autobusetan joanen dira.

Batzuek Azkaingo oihal fabrika bisitatzen duten bitartean, bertzeak Baionan barna ibiliko dira; eta ondotik, aldeantzez. Bi lekuak bisitatu ondotik, Dantxarriko Oihana jatetxean bazkalduko dute, Joseanen musikak girotuta dantzan eta kantuan ibiltzeko aukera izanen dutelarik.

Aurtengoan bizpahiru eguneko ateraldien artean, Alpeetakoa eta Kosta Urdinekoa dira deigarrienak. Mediterraneo itsas bidaiari irailen eginen dute. Oraindik orain, datak zehazteke daude, bidaiari agentziek proiektuak aurkezten dituztenean zehaztuko dira.



OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 17AN

# Kontuen Egunak borobilduko ditu inauteriak

Astelehen eguerdian aterako da konpartsa Afrika gaiarekin eta asteartean Zahagi-dantza

## TTIPI-TTAPA

Inauteriak gainean ditugu. Astelehena eta asteartea izaten dira egun handiak, baina igandean gaztetxoan zahagi dantzarekin, Irati eta Mariaren eskutik izanen den dantzaldiarekin eta mozorroen afa-riarekin hasiko dira.

Astelehenean, mozorroak baserrietan dauden bitartean, plaza apainduko dute eta eguerdian disfraz eta karrozen kontrapasa egingen dute herrian, Afrika gaiarekin. Helduek bazkaltzen duten bitartean, ttikienek taile-rrak eta zinea izanen dituzte Goxalin eta gero txokolatea banatuko dute. Arratsean mozorroak dultzaineroekin etorriko dira herrira bueltan eta gero afaria izanen dute.

Asteartean herrian barna ibiliko dira mozorroak eta zahagi dantza dantzatuko dute arra-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

## San Anton eguna ospatu zuten aurten ere

San Anton eguna ospatu zuten ilbeltzaren 17an. Izen bereko basilizan meza ospatu zuten eta gero, azienden bedeinkazioaren ondotik, salda eta pintxoak banatu zituzten.

tsaldean. Arratsalde eta gauez musika izanen da Ainara eta Dani Narbarterekin eta mozorroen afaria.

Inauteriak bukatzeko, kontuen eguna izanen dute otsailaren 17an, larunbatarekin. Poteo musikatua izanen dute Igandea txarangarekin eguerdi eta arratsalde partean. Tartean, mozorroen bazkaria.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Zahagi-dantzak izaera berezia ematen die inauteriei.

## HONDAKINAK

# Nafarroako Gobernuak 2,8 milioi euroko inbertsioa egingen du puntu garbiak jartzeko


Malerrekan eta Bortzirietan puntu bana eta Leitzaldean eta Baztanen bina paratzea aurreikusten dute

## TTIPI-TTAPA

Ettxeko hondakin arrakutsuak, erakuntzako obra ttikiko hondakinak eta inausketakoak birziklatu eta berrerabiltzeko zerbitzua sustatzen hasiak dira dagoeneko. Ilbeltzaren 23an Gareseko jarri zuten abian. Aurten eta heldu den urtean 3,5 milioi euroko inbertsioak egingen dira, Nafarroako 11 mankomunitatetan. Puntu garbiak Tokiko Inbertsioen Pla-

neko funtsekin (2,8 milioi euro), Hondakin Kontsortzioekin eta Iruñerriko Mankomunitatekoekin (0,7 milioi euro) finantzatuko dira. Eta horren bidez, hondakin gutxiago sortu eta berrerabiltzea lortu nahi da. Horren harira, 2017-2027 Plana aipatu zuen Elizalde, hondakinaren %65a gaika biltzearen aldeko apustua eginaz.

Era berean, Nafarroako Gobernuak neurri horiekiko duen konpromisoa azaleratu nahi izan du. Bertze ekimen batzuen artean Hondakin Prebentziarako eta Ekonomia Zirkular alderako Trantsiziorako Bulegoa jarriko da abian, «Nafarroa ildo horretan erreferentziatzeko gizarte bilakatzen laguntzeko, lehengaien erabilera arduratsua eginez, tokiko ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Orain arteko puntu garbiak eta etorkizunerako aurreikusten direnak, mapan.

liabideak ahalik eta gehien aprobetxatu eta murrizteko, berrerabiltzeko, konpontzeko eta birziklatzeko araua etengabeko zirkuluan aplikatuz, naturaren beraren funtzionamendua imitatuta».

## LEITZA

GIZARTEA → URTARRILAREN 30EAN

# Zuntz optikoa hedatzeko behar diren baimen eskaerak egiten hasiak dira

81.500 euroko kostua izanendu eta %65a diru-laguntza bidez ordainduko da

## TTIPI-TTAPA

Udalak herrian zuntz optikoa hedatzeko proiektua dela eta, urtarrilaren Orange edo INSYTE enpresak etxejabe edota auzokide elkarteei loturakegiteko behar diren baimenak eskatzen hasi direla jakinarazi du.

Aurten zuntz optikoa Leitza-raino ekarriko da eta laster etxe guztiak saretu ahalko ditu. Horrela, herrian internet zerbitzu hobea eta azkarra goa bermatzea da asmoa. Guztira 81.500 euroko kostua izanendu.

Alabaina, %65a diru-laguntzen bidez ordainduko da.

Urtarrilaren 30ean hasi ziren Orange edo INSYTE enpresak etxejabe edota auzokideekin harremanetan, zuntz optikoa hedatzeko egin beharreko baimenak eskatzen.

## EDERBIDEA PROIEKTUA ERE AURRERABIDEAN

Aitzitik, zuntz optikoren hedapena ez da proiektu bakarra. Ederbidea proiektuaren lan-taldea ere buru-belarri ari da lanean. Besteak beste, urtarrilaren 31n Plazaolan bildu ziren. Proiektu horren bidez, Plazaolako geltokian, biltegiaren eraikinean zaharberritze lanak egin eta komun publikoak jarri nahi dituzte.



## Ba al zenekien

Anikote kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epeak zabalik jarraitzen duela? Hainbat ikastarotan (pilates, zumba, dantza latinoak...) oraindik apuntatzeko tokia dago. Izena emateko 948 510719 telefonora deitu behar da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Eskolako zuzendariari babesa emateko elkarrataratze jendetsua

Erleta eskolako zuzendariari izaera sexista eta matxista duten pintadak egin zizkioen. Halako gertakariak salatzeke, urtarrilaren 26an elkarretaratzea egin zuten eskolako atarian. Euriak ez zuen jendeak parte-hartzea galarazi eta aterkiz bete zuten ataria.



ARGAZKIAK: NEREA MAZKIARAN

## Giro ederrean joan dira inauteriak

Ilbeltzaren 27tik 31ra bitarte karrikak kolorez jantzi zituzten herritarrek eta ikusle dezente bertaratu zen herrira. Ostiraleko umeen kalejirarekin hasita, bazkariak, etxez etxeko eskea, karaokea, atsaureak, musika, puzgarriak, *Kalean otso etxean* uso ikuskizuna... geldirik egoteko aitzakiarik ez zuten izan haur, gazte zein helduek. Baina zalantzarik gabe, ikusmira handiena igandeko moztorro eta gurdien kalejirak piztu zuen. Incansables txaranga lagun, hilabete luzeetako lana plazaratu baitzuten. Astelehenean, berriz, 2008an berreskuraturako tradizioa berriz ere herrian errotzen ari dela ikusi zen. Geroz eta ederrakoak diren alambre oinarriz eta paper koloretsu zein lumentz eginiko zapelak dira horren lekuko.

GIZARTEA → URTARRILAREN 29AN

## Udalak herriko bi langile kontratatzeke deialdia egin du

Ohiko batzarrean 2018ko aurrekontuak onartu ditu

### TTIPI-TTAPA

Udalak urtarrilaren 29ko ohiko batzarrean aurrekontuak eta plan-tilla organikoa onartu zituen, 2018rako aurrekontu (zerga zein inbertsioak) eta gastuen nondik norakoak mahairatuz.

Aurrekontuei dago-kenez, zerga tasak izoz-

tea erabaki zuten, eta beraz, aurtengo urtean, behinik behin, ez dute gorakadarik izanen.

Era bertsean, datoren urtera begira, egiteke dituzten inbertsioez hitz egin zuten. 67.000 euro inguru inbertitzea aurreikusituz.

Alde batetik, 40.000 euroko inbertsioa zuntz optikoarentzako kanalizazioak egiteko izanen litzateke. Nafarroako aurrekontuak onartu bezain laster ekingo lio-kete lan horri. Bestalde, Sastinetik hasita elizarrainoko kalean manteni-

menduzko konponketak eginen dituzte, asfaltoa txukunduz. Horretarako 6.000 euro inguruko inbertsioa egingo dute.

Landa Garapeneko Programaren baitan diru-laguntza bat lortuz gero, eskola zabaltzeko eta herriari erabilera anitzeko areto bat eskaintzeko asmoaz ere jardun zuten. Kasu horretan 70.000 eurotik %70a, 49.000 euro, diru-laguntzetatik jasoko lukete; gainontzeko %30a, hau da, 21.000 euro, berriz, Udalak ordainduko beharko luke.

### BI LANGILEREN KONTRATAZIOA

Herriko mantentze lanetan aritzeko bi langile kontratatuko dituztela ere adostu zuten.

Horrela bada, deialdia zabaltzearekin batera, aurreko urteetako joera ikusirik, emakumezkoek ere parte hartzeko deialdia luzatu dute, aintzat hartuko direla esanez. Bide batez,

lan guztiak ez direla fisikoki gogorak gogorarazi dute. Areago, kontraturiko pertsonen ezaugarrietara egokitzeko prestutasuna izlatu dute.

Horren harira, interesdunek Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena ematea oso garrantzitsua dela jakinarazi dute.



### Ba al zenekien

Inauterietako larunbatean mozorro lehiaketa egin zutela? Jende andana bildu zen eta askok bihar-ramuneraino luzatu zituzten inauteriak.

## OKILLIN BIZITEGI AUZOA - LEITZA



**20 PASSIVHAUS-ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA HASTEAREN DA.**

**2018ko martxoaren 15a baino lehen egindako lehendabiziko hamar erreserbak deskontu eta abantaila bereziak edukiko dituzte.**

**Informazioa eta erreserbak:**

OKM zerbitzu juridikoak | T. 609 130 555 | e.celaya@orekabogados.com

## BAZTAN

KULTURA → EKAINAREN 15A ARTE AURKEZ DAITEZKE

# Piriniotar arrazako behien argazki lehiaketa antolatu dute

Irailaren 22 eta 23an egingen da XXXI.

Lehiaketa-  
Enkantea,  
kartel eta esku-  
orriako irudiak  
aukeratzeko

beak. Aspina elkarteko ordekarri batek, bi abeltzainek, argazkigintzan aditu batek eta Baztango udal zinegotzi batek osatuko duten epaimahaiak hiru argazki onenak sarituko ditu 400, 200 eta 100 euroko sariekin. Horretaz gain, lehen saria lortzen duen argazkia kartelean eta liburuxkaren azalean agertuko da. Bertzeak, berriz, aipatu liburuxka horretan eta behi-azi-



TESTUA ETA ARGAZKIA: AINHOA LARRETXE

## (H)ilbeltza akitzeko solasaldi jendetsua Arizkunenean

Iratxe Fresneda, EHUko irakasle eta ikerlariak, eta Irati Jimenez idazleak eman zuten hitzaldia, Arantxa Iturbe kazetari eta idazleak moderatuta. 80 bat lagun bildu ziren Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean ilbeltzaren 20an. Genero beltzean esterotipoek duten indarra izan zuten mintzagai. Irati Jimenez Zinema klasikoaz solastatu zen, batez ere, *femme fatale* arketipoa landu zuen. Iratxe Fresnedak, berriz, emakumeen papera aztertu zuen Eskandinavian sortutako serietan. Hitzaldiaren ondotik, Erratzun segitu zuen Hilbeltzak. Eguerdian bazkaria izan zuten, arratsaldean hiru liburu eta antzerki baten aurkezpena izan ziren eta eguna akitzeko *Susmagarrien gaua*. Biharamunean, Anizen mendia izan dute kontakizun antzeztu baten eszenaleku eta igande arratsean, Iruritan, *Hama(h)iru ate* ikuskizuna eskaini zuten. Honenbertzez, Nobela Beltzaren Astea akitutzat eman zuten.

enda lehiaketaren publizitaterako baliabideetan ere erabiliak izan daitezke. Sari-banaketan behi-azienda piriniotarraren lehiaketaren egunean egingen dute.



TESTUA ETA ARGAZKIA: AINHOA ASTIZ

## Lekarozko inauteriak asteburuan

Otsailaren 9 eta 10ean inauteriak ospatuko dituzte Lekarozen. Ortziralean, eskolara bisita egin ondotik, baserriz baserri triki-panderoekin ibili eta Larraldea sagardotegian afalduko dute. Larunbatean, herriko etxeetan ibiliko dira akordeoilariarekin.



ARGAZKIA: NEREA BEGINO  
Igantzioko Nerea Beginoren  
argazki honek irabazi zuen  
iaz lehiaketa.

### TTIPI-TTAPA

Piriniotar arrazako behi eta bere ingurua gaiarekin argazki lehiaketa antolatu dute, bigarren urtez, Baztango Udalak eta Aspina eta Conaspi erakudeek. Lehiaketaren xedea, irailaren 22an eta 23an ospatuko den Behi-Azienda Piriniotarraren XXXI. Lehiaketa-Enkante Nazionala iragarriko duen kartel eta esku-orriako argazkia aukeratzeko da.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 15ean (ortziralea) 14:00etan akituko da. Eskura aurkeztu daitezke Baztango Udalaren bulegoetan (CD, DVD edo pendrive batean) edo posta elektronikoz *baztan@baztan.eus* helbidera igorrita (2 MB gehienez). Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkezten ahal ditu gehienez ere, berak egindakoak eta argitaratu ga-

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T.948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com  
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTRATEGIA DE CONSTRUCCIÓN



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →



ARGAZKIA: EDURNE BIGURIA  
BKT taldea osatzen duten 110 jokalariek, entrena-tzaile eta laguntzaileekin.

KIROLA → ILBELTZAREN 27AN

## Talde guztien aurkezpena egin du Baztango BKT eskubaloi taldeak

110 jokalarik osatzen dute kluba

### TTIPI-TTAPA

Baztan Kirol Taldeko talde guztien aurkezpena egin zuten ilbeltzaren 27an Elizondoko kiroldegian. Ttikienetatik hasi eta senior mailakok bitarte, 110 jokalarik

osatzen dute taldea eta bere ekipazio berriarekin atera zuten argazkia. Aurkezpenaren ondotik, aurten Ainhoa Astiz leharzarrak gidatzen duen talde nagusiak lauko finalean sartzeko partida garrantzitsua zuen eta bildutako zaleen berotasunari esker, sailkapena lortu zuten seniorren taldeak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Berroetan parking berria egiteko 3.000 euroko inbertsioa

Berroetako herriaren eskariz, herriko plazaren ondoan parking publikoa egin du Udalak. Autoak aparkatzeko tokia lurzati partikular batean egin da eta, horretarako, Berroetako herriak luraren jabearekin hitzarmena egin du. Baztango Udalak legar eta harri-xeheko plantxa prestatu du, guztira 3.000 euroko inbertsioa eginez. Aparkalekuak herriak zituen trafiko arazoak konponduko ditu, herriko plaza aldioro aparkaturiko autoz gainezka egoten baitzen. Baztango Udaleko gobernutik adierazi dutenez, «bailarako herriek egiten dituzten hitzarmenei balioa» ematen dietela, eta horregatik, herriak egindako hitzarmena oinarri hartuta inbertsioa egin du. Aparkalekua egin den lurzati pribatua eta urbanizagarria da. Etorkizunean bertan eraikiko balitz, ingurunea urbanizatu behar litzateke eta autoak aparkatzeko tokiak prestatu, baina epe laburrean halakorik gertatuko ez denez, herriko arazoak konpontzeko aipatu lanak egin dira.

**zergalan** | asegi  
asesores y consejeros de empresa  
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [info@zergalan.es](mailto:info@zergalan.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

**CARLOS  
GARAIKOETXEA  
ETXENIKE  
abokatu**



Santiago, 59 2C  
ELIZONDO  
T. 948 581 468  
M. 630 354 818

# BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUKO AURREKONTUETAN DAUDEN 100.000 EURO

## Elizondoko plazako eraikinean inbertitzea eskatu du Geroa Baik

Urteko mantentze-lanak 30.000 euroko kostua izanen lukeela erantzun dio udal gobernu taldeak

### TTIPI-TTAPA

Baztango Geroa Baik, Udalean EH Bildu eta Baztango Ezkerrak osatzen duten udal gobernuari eskatu dio 2018ko Nafarroako Aurrekontuetan dauden 100.000 euroak Elizondoko plazako eraikinean inbertitu ditzan, haran osoko bizilagunei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko helburuarekin.

Geroa Baik Udal taldeak esplikatu duenez, Nafarroako Parlamentuak 100.000 euroko zuzenketa onartu zuen aho batez, Geroa Baik egindako proposamenaren ondorioz, eraikin horren hobetzeko. Aldi berean, Udal Gobernuak eraikin horrekin agertzen duen «nagikeria» kritikatu du, «azken zazpi urtetan ez baita lanik egin han. Utzikeria eta abandonu itxura erakusten du eraikinak, haranaren irudirik ez duena».

### ZERBITZUAK

«Elizondoko plazako eraikina haran osoko bizilagunei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak kokatzeko asmoarekin proiektatu zen: Turismo Bulegoa, Bake



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Elizondoko plazako eraikinean zazpi urtez ez dela deus egin salatu du Geroa Baik.

Epaitegiak, Kultura eta Kirol arloko bulegoak, ekitaldi zibilak egiteko areto bat, Nortasun Agiriaren edota Iratxe Kontsumitzaileen Elkartearendako unean uneko bulegoak bilduko zituen erabilera anitzeko aretoak, baita gaitasun

eza duten pertsonendako komunak instalatzeko ere», gogorarazi du Geroa Baik. Udal taldearen ustez, «ezinbertzeko garrantzia du lanen akitzeak eta eraikin honen abian jartzeak, orain bertze zerbaiteko eta zailtasunekin ibil-

tzen diren espazioak libratuz. Bake Epaitegiak, konparazione, Herriko Etxetik urrun gelditzen dira, bi eraikinetan eskaintzen diren zerbitzuak elkarren artean aski lotuak badira ere».

Geroa Baik gogorazi nahi du 2016an EH

Bildu eta Baztango Ezkerraren aurrekontuei bere babesa eman zuela, aurkeztutako hiru zuzenketa onartu ondoren. Horietako batean 30.000 euro bereizten ziren eraikin honen lanekin hasteko, «baina ez da deus egin, eta horrek erran nahi du Udal Gobernuak ez dituela bete hartu zituen konpromisoak».

Geroa Baik Udal Gobernu taldeari eskatu dio «lanen akitzea behingoz serio hardezan» eta azpimarratu du «obrek bere osotasunean 180.000 euroko kostua badute ere, 2018ko Nafarroako Aurrekontuetan bereizi diren 100.000 euroak lanen hasteko bulkaldi ederra direla». Eraikinen lanekin akituz gero «gure haraneko bizilagunei zerbitzu hobekak emateko moduan jarriko gara» uste du Geroa Baik.

### UDAL GOBERNU TALDEAREN ERANTZUNA:

«Urteko mantentze-lanak 30.000 euro kostako lirateke»

Proposatutako zerbitzuak gaurgero eskaintzen direla dio

### TTIPI-TTAPA

Afera honen inguruan, udal gobernuak kontu batzuk argitu nahi izan ditu ohar baten bidez. Hasteko, Geroa Baik plazako eraikina akitu nahi badu umiltasun gehiago beharko lukeela uste dute EH Bilduk eta Ezkerrak, «aipatu eraikina baztandarrek hartutako beren oinordetza ezin kaskarragoa baita». Geroa Baik

aipatzen dituen zerbitzuak gaurgero ematen direla oroitarazi du Udal Gobernu taldeak. «Hortaz, eraikinak zerbitzu publiko berriak emateari buruz ez du deus suposatuko, baina bai mantentze-lan eta gastu arrunta igateari buruz, urteroko gastuak 30.000 euro ingurukoak izanen baitira (garbiketa 20.419, argia eta berogailua 8.273 eta igogailua 1.600). Zerbitzu bera emateagatik gastu arrunta handiagoa izanen da». Bertze aferekin jarraikiz, Geroa Baik lortu duen 100.000 euroko laguntza nominatiboak

zer pentsa ematen dio Udal Gobernu taldeari, «zeren landa garapenetik eskuratu badu, argi dago eraikinak landa-garapenarekin deus ikustekorik ez duela. Aldi berean, iduri luke Geroa Bairendako Baztango gabeziarik handiena beren eraikina dela, ohartu gabe gabezia aunitz daudela». Akitzeko, 2016ko aurrekontuetan hitzartutako 30.000 euroei buruz, «Geroa Baik ongi dakien bezala plaza moldatzeko eta berritzeko erabili zen, bertan ziren metalezko pergolak hondaturik arriskua baitzekarten», dio oharrak.

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 8TIK 10ERA

# Orakunde eta inauterietan murgilduko dira Arraiozen

Orzeguna izanen da neska-mutikoen egun handia eta ortziraletan eta larunbatean gazteak eskean ibiliko dira

## Nerea MORTALENA

Arraiozko haur eta gazteak inauteri eta orakunde egunaren zain daude. Baztango herrietan denbora batean inauteriak soilik gazteek egiten zituzten, eta haurrek, berriz, orakunde, 'egun ttun-ttun' edo oilar dantza ospatzen zuten. Duela zenbait urte, Arraiozen orakunde eguna, aurreko egunean, asteazkenean, ospatzen zen eta herriko haurrak baserriak bisitatzeko zizuten beren kanta, irri eta alaitasuna hedatuz.

Gauregun, ordea, orzeguna izaten da neska-mutikoen egun handia. Aurten, otsailaren 8an egingen dute. Goizean meza eta herrikan barna kantuz joaten dira, herriko karririk alaituz. Eguerdian ohikoa den orakunde eguneko menua bazkaltzen dute eta arratsaldean jokoak eta eguneko momenturik garrantzitsuena izaten dute, oilar harrapatzea.

## INAUTERIAK OTSAILAREN 9 ETA 10EAN

Arraiozen ere, urte batzuk gibelera egiten badugu, mutil gazteek inauteriak egiten zituzten. Izan ere, etxez etxe ibiltzen ziren akordeoi soinuaz alaiturik. Lehenago hiru egun irauten zuten inauteriek, ortzegunarekin hasi eta larunbatean bukatzen zituzten.

Gauregun, noski, herrian neskek eta mutilak ibiltzen gara eskean, eta inauteriek bi egun irauten dituzte. Aurtengoan, otsailaren 9an eta 10ean izanen dira.

Ortziraletarekin hasien dira. Herriko gazteek, goizean goizik, ostuan elkartu eta bertako baratzuri zopa eta zenbait etxetan ematen duten zerri-puskekin gosaltzen dute eta in-



TESTUA ETA ARGAZKIAK: XABIER MARITORENA

## Euskal Herriko mus txapelketa Arraiozen ere jokatu dute

Euskal Herriko hainbat txokotan bezala, Euskal Herriko Mus Txapelketa jokatu zen ilbeltzaren 20an. Arraiozko Arizti elkartearen 11 bikote elkartu ziren eta ondokoa izan zen sailkapena: lehenbiziko postuan, Jose Luis eta Eneko Karrikaburu; bigarren postuan, Enkarna Andueza eta Marielen Pain; hirugarren postuan Aritz Alunda eta Garikoitz Larretxea; eta laugarrenean Xabi eta Migel Maritorea. Lehenbiziko hiru bikoteek otsailaren 24an Iruñean jokatu den bigarren kanporaketarako sailkatzea lortu dute.

dar nahiko hartu ondotik, baserrietara joaten dira, eskean akordeoi musikaz lagundurik.

Larunbatean, berriz, herrian aritzen dira eskean, Mardea auzotik hasi eta Urrutian akitzen dute beren bueltaxka. Eguna akitzeko, afari herrikoia antolatzen da

Herriko Batzarrean eta bertara edozein herritar hurbiltzen ahal da. Musikaren laguntzaz, adio erraten diegu Arraiozko herritarrek inauteei.

## ESKOLAN ERE OSPATZEN DUTE

Escolan ere haurrek inauteriak ospatzen di-

tuzte. Ortziraletan, mozzorrotu, herriari buelta eman eta gero txokolatea hartuz akitzen dute eguna. Larunbatean, gazteak etxez etxe ibiltzen dira eta haurrek gustura hartzen dute gazteen bisita. Beraiek ere mozzorrotu eta egunaz gozatzen dute.



ARGAZKIA: NEREA MORTALENA

Neska-mutikoen orakunde eguna ospatuko dute.



ARGAZKIA: NEREA MORTALENA

Gazteak eskean ibiliko dira ortziraletan eta larunbatean.

## BAZTAN

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 10EAN

# Orakunde eguna ospatuko dute larunbatean Anizen

Astelehen arratsaldean haur eta gurasoak mozorroturik aterako dira

## Maitane MARITORENA

Otsailaren 10ean izanen dugu orakunde Anizen. Larunbatean 10:30ean egingen dute hitzordua plaxa xaharretik etxez etxe ibiltzeko. Olentzerotan eta urtetsetan ez bezala, orakundetan etxez etxe Askagaindik hasiko dira, goitiko karrikatik. Haur eta gurasoak baserri-tarrez beztituak puskak biltzen ibiliko dira eskuan: arrautzak, txistorra, xingarra eta esnea.

Etkez etxe ibili ondokitik, 14:00etan bazkaria izanen dute Mendiarte kultur elkartearen, eta segidan, laurak aldera, jokoaren txanda izanen da. Jokoetan, printzipale-



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Haurrak ez ezik, helduxeagoak ere aritzen dira jostetan Anizen.

nak haurrak baldin bada dira ere, Anizen helduxeagoak ere aritzen dira jostetan. Ilunabar aldera, hondarreko jokoa oilar harrapatzea izaten da.

Jokoak akituta txokolatada jateko aukera izanen da, eta akitzeko,

etxez etxe bildutako puskekin afaria izanen da: tortilla txistorraren, xingarra...

Astelehen arratsaldean, otsailaren 12an, haur eta gurasoak berri ere bestan ibiliko dira, kasu honetan mozorroturik. Anizko inaute-

riak ilbeltzaren 20an izan baziren, hurrek ere beren mozorro besta izateko, hondar urteetan inauterietako astelehenarekin mozorroa soinean herriari itzulia ematen diote eta arratsaldean merendua egingen dute elkartearen.

## FLASH

## Bailableak

Baztango dantzariak eta Elizondoko Gaitariak bailableak eskainiko dituzte otsailaren 11n, igandean, 12:45ean Elizondoko plazan.

## Baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa

Baztango Agroekologia Eskola Herritarren baitan, baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa eskainiko du Ruth Peña baratzezainak otsailaren 24an, larunbatean 10:00etatik 12:00etara Oronozko batzartokian. Izen emateko [hazitikhozie1@gmail.com](mailto:hazitikhozie1@gmail.com) helbidera idatzi behar da.

## Joseba Tapia eta Besamotzak

Joseba Tapia eta Besamotzak taldeak kontzertua eskainiko dute otsailaren 25ean, igande arratsaldeko zazpitan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Udaleko Kultura Batzordeak 2018ko Arte eta Kultura programaren baitan antolatutako emandirako sarrera doan izanen da.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: MAIALEN IANTZI

## Anizko eta Berroetako gazteek ospatu dituzte inauteriak

Ilbeltzeko hondarreko bi asteburuetan inauteriak ospatu dituzte Aniz eta Berroetako gazteek. Bi ortziraletan otorduekin hasi zuten besta. Larunbatetan, berriz, etxez etxe ibili ziren trikitilarien laguntzarekin eta dantza egin zuten Salaberriekin. Bi asteburu bikain pasatu eta gero, heldu den urtera arte sabaian altxatuko dituzte mozorroak gazteek. Orain bertze herrietara bisita egin behar...



GIZARTEA → HILABETEKO LAUGARREN IGANDETAN

## Atxuria Mendi Taldeak prest du aurtengo ibilaldien egutegia

Hilabeteko laugarren igandean egingen dute eta 08:00etan abiatuko dira plazatik

### Josebiñe eta Koro

Atxuria Mendi Taldeak dagoeneko prest du aurtengo ibilaldien egutegia. Egutegian zehaztu bezala, aurtengoa hamar ateraldi egingen dituzte. Uztailean eta abuztuan baino ez dute hutsik egingen. Gainerako hilabeteetan, laugarren igandean, 08:00etan izanen dute hitzordua eta plazatik abiatuko dira.

### HASIAK DIRA DAGOENAKO

Ilbeltzaren 28an egin zuten lehendabizikoa, Lesakako San Anton ermitara joan ziren, eurite eta haize bolada handiei aurre eginez. Otsai-

laren 25ean, berriz, Saratik Ibardinerako bidea egingen dute. Martxorako, Zugarramurditik abiatu eta Atxurian barna Urdazubira joatea aurreikusitako da. Apirilean, berriz, mendira joanen dira, Erreniagara, zehazki. Maiatzean ere, inguruko parajeet gozatzeko, Izpegitik Auza-rako buelta egingen dute; eta ekainean Xareta Eguneko ibilaldia egingen dute. Aitzinerago, egun horretako ekitaldia zehaztearekin batera, emanen dugu azken ateraldi horren berri.

### ATSEDENA BI HILABETEZ

Uztailean eta abuztuan oro har, bero handia izan ohi denez, bi hilabete horietan ez dute ateraldirik egingen. Atsedena hartzeko aprobeztatu dute. Horrela, irailaren 23an berrartuko dituzte ibilaldiak, Beratik Irrisarri Landera joanen direlarik. Urriaren 23an, urteko ibilaldiak boro-biltzeko, Ibardinetik Intzolarra eta buelta egingen dute.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Atxuria Mendi Taldeko kideak Lesakako San Anton ermitarat eginiko urteko lehendabiziko ibilaldian, haize eta eurite handiarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Greziako errefuxiatuen kanpamenduak herritarren babespean

Azken urteetan Europara errefuxiatu aunitz etorri dira. Aitzitik, hona etorri eta hemengo kanpamenduetan bizi duten egoera latz eta penagarria da. Egoera horri aitzin egiteko, jendea borondatez ari da lanean. Tartean, Ainara eta Marifak beren laguntza eskaini zieten, urtarrilaren 4tik 23rat Greziako Moriako errefuxiatuen kanpamenduan izan zirelarik.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gutziz galdua zen bide zati bat berreskuratu dute auzolanean

Urtarrilaren 28an 'malobra' (auzolana) egin zuten Ainaratik Gaineko bordarainoko bidea garbitzeko. Ote eta lar pikaldi polita egin zuten, Txokolotako erreka berbideratzea lortuz. Era berean, lan horietan ari zirela, gutziz galdua zen bide zati bat (50 metro) aurkitu zuten, garbitu eta berreskuratu.

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 599 131  
Zugarramurdi errep. 3 km  
URDAZUBI

# URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

HEZKUNTZA → XARETAKO ESKOLAK

## Bi herritako ikasleek ez dute Ainhoa eta Sarako eskoletan ikasiko

Gurasoek ezetz erran diote Gobernuaren proposamenari

### Iñigo IMAZ

Gaur egun 52 ikaslek ikasten dute Urdazubi eta Zugarramurdiko eskola publikoan. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak mugaren aldeetako ikasleak elkarrekin ikasteko luzaturiko proposamenari ezezkoa eman zioten urte hasieran egin batzarrean. Guztira 33 gurasok hartu behar zuten erabakia, 32k eman zuten beren iritzia, eta horietatik 31k ezezkoa eman zioten proposamenari eta bakararra agertu zen alde.

Hezkuntza Sailak Xaretako eskola publikoetako ikasleak batu nahi zituen. Gaur egun, Urda-

zubi eta Zugarramurdiko zenbait ikaslek Lapurdiko eskola eta ikastoletan ikasten badute ere, 52 ikaslek Nafarroako eskola publikoan ikasten dute eskualdean erabiltzen diren hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez) eta ingelesez. Lehen Hezkuntzako eskolak finitzean, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolakoek Lekarozko ikastetxean jarraitzen dituzte ikasketak. Nafarroako Gobernuaren proposamenak, horregatik, ez zuen muga arteko curriculum propioa sortzea helburu, mugaz bi aldeko ikasleek eskualdeko lau herrietan eta eraikin berean ikastea baizik. Haatik, Iparraldeko ikasleek frantziar curriculum eta nafarrek beraien mantentzea zen proposamenaren funtsa.



ARGAZKIAK: AMAIA IRIONDO

### Jubilotekek lagunak Ainhoan

Kontent ibili ziren Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotekek lagunak ilbeltzaren 30ean Ainhoako jubilatuen zentrorra egindako ateraldian. Hamar laguneko taldea hurbildu zen Ainhoara eta kontu kontari aritu ziren. Gainera, Baztandik Ainhoara joandako ezagunekin topo egin zuten eta aski tarte atsegina pasatu zuten. Bide batez, Urdazubiko jubilotekara etortzeko gonbidapena ere luzatu zieten.

### HERRIZ HERRI BANATUAK

Gobernuaren arabera, Zugarramurdiko eskolan 3 eta 4 urtekoek ikasiko lukete, 18 orduz euskaraz, lau frantsesez eta hiru gaztelaniaz. 5 eta 6 urteko ikasleak Saran ariko lirake, 14-17 ordu euskaraz, zazpi eta hamar artean frantsesez eta lau gaztelaniaz. Ainhoako eskolara 7 eta 8 urteko ikasleak pasako lirake, eta 9 urtekoak Urdazubirat. 10 urterekin, Lapurdiko ikasleak Iparraldeko eskolaren batera aldatuko lirake, eta Hegoaldekoek Urdazubi eta Zugarramurdin jarraituko lukete, Lekarozera joan arte. Ordu li-

breetan ingeleza ikastea zen Gobernuaren asmoa.

Urdazubi eta Zugarramurdiko gurasoen iritziz, proiektua ez zaie ongi planteatu. Ezustean eta presaka aurkeztu zaiela diote, kasik pentsatzeko astirik gabe. Xaretako guraso ia guztiak seme-alabak hiru hizkuntzetan jaioak izatea interesgarria dela uste dute, baina, «esperimentu» moduan ikusi dute; galdera aunitz erantzunik gabe eta, gainera, egutegi korapilatsuak, jangelan gelditu behar izatea eta hurrak distantzia luzeetara bidaltzea. Curriculumari dagokionez, Hegoaldekoendako exijentzia maila

gutitzea ekarriko zukeela adierazi digu gurasoren batek, eta gerora, ikasleek Nafarroako mailara ailegatzekeo esfortzu berezia egin behar izatea ez zutela egoki irizten.

Pirinioetako Departamentutik dator proposamena. Sarako eskola publikoaren etorkizunarekin kezkatuak, Herriko Etxeko arduradunak kezkatuak baitabilta. Sara eta Ainhoako eskola publikoetan ez da gaia ofizialki aurkeztu, Nafarroako gurasoen erabakiaren esperoan zeudelako. Hortaz, aurten Urdazubi eta Zugarramurdiko ikasleek Nafarroan ikasten jarraituko dute.

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarinetatik  
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanco@gmail.com

**VENTA PEIO**  
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA    Dantxarinea 31712 URDAX    Ibardin 31780 BERA    Luzaide 31660 LUZAIDE

Landibar

tabac · cadeaux · maroquinerie

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 27AN

# Lehenbiziko etxez etxe egin dute gazteek Hergarai auzoan

Ihauterien arte aste hondar guzietan eginen dituzte, geroz eta kantari eta dantzari gehiagorekin

## Pierre BASTRES

Usaian bezala, ihauterietako hiru aitzineko aste hondarretan etxez etxe joanen dira herriko gazteak, eta aurten Hergaraitik hasi dira.

Usaiari jarraikiz, Zaku Zaharreko dozena bat kide elkarretaratu dira urtarrilaren azken larunbatean, eta goizetik arrats ihauterietako egitaraua banatu dituzte etxeetan, zer nahi kantu eta dantza emanen jendeen begitarte onen truk.

Alaia Jauregi gazteak ongi adierazten duen bezala «azken urte horietan geroz eta kantari gehiagoinen etxez etxeetan, bainan dantzari guttiago. Nabardura bat ikusten dut haatik joan den urteaz geroztik: mutiko gehiagok dantzatzeko badakite, gazteenak hartzen baitira Zirikat dantza elkartean, eta zaharrenek indar handi bat egin dutelakoaz. Izan ere, Maylis Lagasa herriko dantza irakaslearekin dantza zombait ikasi ditzutelako, Banakoa, Fandangoa, bertzeak bertze. Bertzalde guk emaiten ditugun kantuk egun guzikoak dira,



eta ez bakarrik ihauterietakoak adibidez Larrekorenak nolaz ez, *Nigarrez sortu nintzen*, eta bertze zenbait».

Ihauterietako gustua nondik daukan galdegina, Alaiak dio «ttikitatik oroitzen naiz orduko gazteen etxez etxeko kantuez eta dantzez, xoratzen ninduten! Beraz aski goizik parte hartzeko gogoia piztu zait. Lehenik gazteen arteko lotura da, elkar ezagutzeko parada hots, zeren eta guk 21-22 urte ditugu, gazteenek 17 eta zaharrenek 27, eta honenbertez ez gara beti elgarrekin egoten. Bisitatzeko ditugun etxeen ezagutza arraz inportantea da. Zoritxarrez askotan erdaraz hasten gara mintzatzen jendeekin, bainan usu euskaraz ere emaiten dugu, eta askok atsegina dute ikustea eta aditza herriko gazteek badakitela».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriko gazteek inauterien aitzineko hiru asteburuetan egiten dituzten etxez etxe ateraldiekin hasi dira. Lehenbizikoa, urtarrilaren azken aste hondarretan egin zuten Hergarai auzoan, baina pittanaka herriko auzo guztietan ibiliko dira, beraien musika eta dantza alaiekin, giro polita sortuz.

## OTSAILAREN 17AN

Egitarau zabalarekin datoz inauteriak

### Pierre BASTRES

Inauteriak otsailaren 17an ospatuko dira, larunbatekin. Egitarau zabalak dute aurten ere.

- 11:30ean: HERRITARRAREN APERITIFA karrika nagusi. Bakoitzak nahi duena ekartzen ahal du, zintzurak bustitzeko (edariak, aperitifako pastizak...).
- 13:00etan: BAZKARIA Senpereko Gaztearen hanburgesekin.
- 15:30ean: ANIMAZIOAK Senpereko elkarteekin. KRAKADA krepak eta txokolo-esnearekin Zirikat zekin.
- 16:00etan: Mutxikoak SALTOKA taldearekin.
- 17:30ean: DESFILEA animatua (ziganteak, gaiteroak, joaldunak, tanborrada...). Zantzarren AUZIA. Errea izanen ote da?
- 19:00etan: APERITIFA alaitua eta JATEKOA Senpereko ikastolarekin. Mozorro hoberenaren TXAPELKETA.
- 21:30ean: Gaualdia OXTIKENIAN. Karrika Nagusia heresia izanen da.

## SARA

GIZARTEA → ILBELTZAREN 16AN ETA 19AN

# Jende andana bildu dute agiantzen aurkezpenek

Elkargo eta herriko agiantzak aurkeztu dituzte

## TTIPI-TTAPA

Urtebete pasatu da Euskal Hirigune Elkargoasortu zenetik, eta Jean Rene Etxegarai lehendakariak 158 herrien artean, Sara aukeratu du agiantzak aurkezteko. Halaxeein zuten ilbeltzaren 15ean, 500 bat lagunen aitzinean.

Gonbidatu aunitz hurbildu zen, tartean, Gilbert Payet Pirinio Atlantikoetako prefeta, Isabel Elizalde Nafarroako Gobernuko kontseilaria, EAeko ordezkariak, Max Brisson senataria, auzapez andana eta elkargoko langile ainitz.

2017an egindako lanen bilana egin zuten lehendakariak eta beritzeak bertze, ura eta saneamendua, artea, garraioa, hondakinak, ekonomia, laborantza, eta hizkuntzak aipatu zituen, azken honetan, euskara eta gaskoina. 2018-rako dituzten proiektuez ere aritu zen. Arlo batzuk Departamentuarekin elkarbanatu behar direla erran zuten, eta aitzitik, arlo soziala osoki hartu.

Arratsa bururatzeko, pintxoak eta arnoa eskaini zituzten, musikak alegeratuta.

## HERRIKO AGIANTZAK

Aste berean, ilbeltzaren 19an, herriko agiantzak aurkeztu zituzten Battit Laborde auzapezak eta axuan tek Lur Berri gelan. Ehun

bat lagun hurbildu ziren horien entzuterara.

Auzapezak herriar guztiei urte berri zoriontsua desiatuz hasi zuten aurkezpena, eta aldi berean, herriko elkarte guztiei, Herriko Etxeko langilei, hiru eskolei, Senperko suhiltzaileei, Xaretako auzapezei eta Jean Pierre Cachenautepezi eskerrak eman zizkien.

Ondotik zazpi auzantek bakoitzak bere arloko xehetasunak eman zituzten: obrak, laborantza, gizartea, eskolak, kirola, kultura, hizkuntza eta aurrekontuak.

Larungo proiektua ere aipatu zuten, Sara-ko herria lan horiei begira erne egonen dela azpimarratuz.

Koldo Zuazok egindako lana ere txalotu zuten, Sara inguruko



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitiko irudian Etxegarai Euskal Elkargoko lehendakaria ageri da, agiantzen aurkezpen egunean. Beheitikoa herriko agiantzen aurkezpenekoa da.

4.000 hitz bildu baititu aurtengo Idazleen Biltzarrerako hiztegi bat sortzeko. Bake bidearen lana gorai patuz bururatu zuten hitzartzea.

Bertalde, hitzordu berean, Urko Ikardok Eva Campo Müller berrikuntza sozialerako elkarte aurkeztu zuten,

Sarako proiektu berri bat lagunduko baitute.

## Inauteriak

Hasiera batean, aste-buru honetan ospatze-koak baziren ere, gazte-ek heldu den astera gibelatu dituzte inauteriak. Otsailaren 17an eta 18an eginen dituzte.

**JOSE ANTONIO URRUTIA ETXEBERRIA**

Urtea pasatu da zuk paraje hauek ikusi gabe baina zure lagunok bakoitzak gure bihotzean gogoan izanen zaitugu.

*Zure lagunak*

**LUIS ELIZEGI URRUTIA**  
1944-01-22 / 2018-01-24

*Argi bat itzali da hemen, lurrean, berri bat piztu da han, zeru ederrean, beti jarraituko duzu zure alaitasunarekin gure bihotzean.*

*Zure familia*

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guztiei, esker mile.


*Rekordatorioak egiten ditugu*

**ttipi-ttapa**  
Koskontako Bidea, 7-1  
LESAKA | 948635458

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan  
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

## HERIOTZAK

**Josefa Iguzkiagirre Zozai**a, Igantzikoa, urtarrilaren 19an, 91 urte.

**Juan Maria Dufurrena Etxenike**, Erratzukoa, urtarrilaren 22an, 80 urte.

**Pedro Aginaga Lazkano**, Arantzakoa, urtarrilaren 22an, 80 urte.

**Pedro Agerrebere Oteiza**, Arraiozkoa, urtarrilaren 23an, 79 urte.

**Luis Elizegi Urrutia**, Lekarozkoa, urtarrilaren 24an, 74 urte.

**Maria Jesus Garaikoetxea Goiene**txe, Erratzukoa, urtarrilaren 25ean, 90 urte.

**Victor Etxaide Gofi**, Erratzukoa, urtarrilaren 25ean, 78 urte.

**Ignacio Santamarina Perez**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 24an, 68 urte.

**Jose Ramon Ibarrola Zabala**, Arantzakoa, urtarrilaren 26an, 80 urte.

**Juliana Aleman Elizaintzin**, Elizondokoa, urtarrilaren 28an, 84 urte.

**Prudentxi Telletxea Zozai**a, Berakoa, urtarrilaren 28an, 93 urte.

**Martin Ormart Garbalena**, Elizondokoa, urtarrilaren 29an, 79 urte.

**Maria Esther Migeltorena Barazabal**, Arizkungoa, urtarrilaren 29an, 90 urte.

**Salome Pikabea Arotzarena**, Elizondokoa, urtarrilaren 31n, 95 urte.

## SORTZEAK

**Ibai Matxifena Barberena**, Urrozkoa, urtarrilaren 18an.

**Ander Petrirena Gorosterrazu**, Sunbillakoa, urtarrilaren 24an.

**Enara Martinez Izagirre**, Lesakakoa, urtarrilaren 31n.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



**Josefa**

**IGUZKIAGIRRE ZOZAIA**

Igantzin hil zen, 2018ko urtarrilaren 19an

*Zu sortu zinen enbor beretik  
sortu gara bertzeak*

*Gogoan izango dittugu  
zure ondoan bizittutako uneak*

*Esker aunitz amaxi*

**ZURE BILOBAK ETA BIRBILOBAK**



**Josetxo**

**Olaetxea Altzugarai**

Lesakan hil zen, 2017ko urtarrilaren 27an

**I. URTEMUGA**

**Aurpegi serioko bromazaleena, etxeko irakasle buru azkarrena. Hitzen bisturi fina, umeen gozamina. Gureganatu dugu zuk zenekiena gure barrutik inoiz joanen ez dena.**

**Senideak, ilobak eta gainerako ahaideak eta lagunak**



**Juanito ZOZAYA GOÑI**

2017ko otsailaren 10ean hil zen, 78 urte zituela

**I. URTEMUGA**

*Orain dela urte bete joan zinen  
ixil ixilik huts haundia utziz.*

*Denbora pasa arren,  
gure bizitzako egun guztietan,  
gogoan izango zaitugu.*

*Beti gure bihotzean.*

**ZURE FAMILIA**

**Bere aldeko meza, otsailaren 11n, igandean 12:30ean Urrozko elizan**

PILOTA → BORTZ BAZTANGOAK ETA OIZ ETA DONEZTEBEKO BANA

# Zazpi hirukote ari dira Baztan-Errekako XVIII. paxaka txapelketan

Martxoaren 10ean jokatuko dituzte finala eta hirugarren posturako lehia Iruritako Aranabia pilotalekuan

## TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren hondarreko asteburuan abiatu zen Baztan-Errekako paxaka txapelketaren 18. edizioa. Zazpi hirukotek eman dute izena eta partidak Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatzen hasiak dira (Erratzuko frontoia ere erabil daiteke).

Ilbeltzaren 27tik otsailaren 24ra jokoan



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatuko dute txapelketa.

den ligan, zazpi hirukote ari dira lehian multzo bakarrean, denak denek kontra. Martxoaren 3an

finalerdiak jokatuko dituzte, ligako lehenbizikoak laugarrenaren kontra eta bigarrenak hiru-

garrenaren kontra. Finala eta hirugarren posturako lehia, berriz, martxoaren 10ean jokatuko

dituzte. Zazpi hirukoteetatik bortz Baztangoak dira, gehienbat Iruritako pilotariek osatuak, bat Oizkoa eta bertzea Doneztebekoa.

## TALDEAK

- 1- Oscar Urrutia, Xabier Ripa eta Kaiet Itoiz.
- 2- Gorka Urtasun, Juan Mari Maia eta Joxe Itoiz.
- 3- Xabier Barberena, Egoitz Prim eta Joxe Mari Salaburu.
- 4- Mikel Ballarena, Cesar Iñarrea eta Iñaki Etxandi.
- 5- Manu Irigoien, Guillermo Etxenike eta Miguel Angel Iñarrea.
- 6- Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias eta Ugutz Zelaieta.
- 7- Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste eta Iban Santesteban.

PILOTA → OTSAILAREN 4TIK AITZINERA

# Ehun emakume hasi dira Master Cup txapelketan

Naroa Elizalde zubietarra da eskualdeko ordezkaria

## TTIPI-TTAPA

Hainbat jatorritako ehun emakume pilotarik jokatuko dute eskuz binakako 2018ko Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketa. Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Errioxakoak ez ezik, Katalu-

niakoak, Aragoikoak, Valentiakoak, Asturiasekoa... ariko dira.

Guztira 42 bikote dira promozio mailan izena eman dutenak; maila gorenean, hau da, lehen mailan, berriz, 8. Promozio mailan Zubietako Naroa Elizaldek Zestoako Araitz Eizagirrerekin hartuko du parte. Bi mailetako kanporaketak Gasteizko Ogeta eta Mendizorrotza Kirol Esparruko hiru pilotalekutan hasi ziren,

otsailaren 4an.

Promozio mailan hiruko sistemako multzoren bidez jokatuko dituzte kanporaketak. Hortaz, bikote bakoitzak, gutxienez, bi partida jokatuko ditu. Multzo bakoitzeko irabazleak hurrengo kanporaketarako sailkatuko dira. Lehen mailan, ordea, lau bikotek osatutako bi taldetan lehiatuko dira pilotariak, eta hiru bikote irabazleek lortuko dute sailkatzea.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Naroa Elizalde zubietarra, pilota astintzen iaz.

TXIRRINDULARITZA → ZAZPIGARREN DENBORALDIA

# Transbidasoa txirrindulari taldea prest

Igantzin aurkeztu zuten master mailako taldea

## TTIPI-TTAPA

Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta master mailako txirrindulari taldearen aurkezpen ekitaldia egin zuten Igantziako Biltokin urtarrilaren 27an. Taldearen zazpigarren denboraldia izanen da, 2012an sortu ondotik, eta Lesako Beti Gazte elkartearen babesarekin izanen du.

Master 60 mailako Espainiako txapelketa, Euskal Herriko eta Na-

farroako txapel aunitz eta hainbat lasterketean garaipenak lortu dituzte sei urteotan. Iaz, Luziano Mitxelena lesakarra Euskadiko txapelketa izan zen kategorian honetan, Espainiako hirugarren eta Munduko txapelketan ere parte hartu zuen.

Hala ere, emaitzen gainera bizikletaren inguruan bitzako esperientziak eta bizipenak izan dira garrantzitsuenak. Hori guztia bizi ahal izateko babesle eta laguntzaileen partehartzea ezinbertzekoa izan da.

Aurkezpen ekitaldian Inurrieta Upategien



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Master mailako txirrindulariek osatzen dute taldea.

komertziala den Felipe Lizardi izan zen, proiektu honi babesa eta laguntza aunitz eskainidiona hasiera hasieratik. Jose Luis Sunstundegi Beti Gazte elkarteko presidentea ere han izan zen, Transbidasoa eta Euromaster enpresetako ordezkariekin batera.

2018 urteari begira urteroko helburu berak izanen ditu taldeak, proba bakoitzean mailarik onena ematea eta po-

TRANSBIDASOA-EUROMASTER-INURRIETA TT		
Luziano MITXELENA	Master-60	LESAKA
Iñigo DORRONSORO	Master-40	LEITZA
Txutxin FERNANDEZ	Master-40	ORDUÑA
Iñigo LIZARTZA	Master-30	LEITZA
Peio LIZARTZA	Master-30	LEITZA
Ion ZEBERIO	Master-30	IRUÑA
Jabier ARIZTIMUÑO	Master-30	LEITZA
Joxe Mari SESTORAIN	Master-30	LEITZA
Juan Jesus IRIGARAI	Master-30	PERALTA

diumera igotzen saietzea; geroz eta zailagoa da podiuma zapaltzea, baina horrek ez ditu belurtuko Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta tal-

deko txirrindulariak. Gehienbat Nafarroa eta inguruetako probetan aterako dira, nahiz eta urrutitako lasterketara ere joanen diren.

SOKATIRA → EUSKADIKO 8X8 TXAPELKETA

# 640 kiloko finalean izanen dira Beti Gazteko mutilak

Neskak 500 kilokoan ari dira orain

## TTIPI-TTAPA

Beti Gazteko mutilen sokatira taldeak 640 kiloko kategoriako Euskadiko sokatira txapel-

ketaren finalean parte hartuko du otsailaren 10ean Idiazabalen (Gipuzkoa). Lehen bi jardu-naldietan bigarren izan da eta hortaz, dominen lehian izanen da. 680 kilokoan hasi ziren eta orduan seigarren izan ziren, baina pisu arina-



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko neskek laugarren izan dira 540 kiloko kategorian eta 500koan ari dira orain.

goetan lehiakorragoak izan dira beti lesakarrak. 600 kiloko azken saioa hilaren 17an izanen dute Ibarren (Gipuzkoa). Ondotik, 560 kiloko saio

bakarra izanen dute otsailaren 24an Laukizen (Bizkaia).

Neskei dagokienez, laugarren izan dira 540 kilokoan eta orain 500

kilokoan ari dira.

Beti Gazteko neskek nahiz mutilak, elkarrekin ariko dira txapelketa mistoan otsailaren 25ean Bilbon.

## otsailak 8 - 22

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

## Antzerkiak



BERA | 2018.02.24

**'Txoriak eta zauriak' antzezlanaren eskainiko dute Berako Kultur Etxean**

Mairu Antzerki Tailerrak *Txoriak eta Zauriak* azken lana eskainiko du otsailaren 24an Berako Kultur Etxean. Lesakan errepidea egiten aritu ziren frankismoko pre-soak dira antzezlaneko protagonistak.

## Kontzertuak



ELIZONDO | 2018.02.25

**Joseba Tapia eta Besamotzak taldea Arizkunenea Kultur Etxean**

Joseba Tapiaren zuzenekoetarako azken egitasmoa da Elizondon eskainiko dutena, eta Tapiak berekin izanen ditu bertze hiru lagun, tartean, Dani Narbarte goizuetarra, eta Iñigo Telletxea beratarra.

## Ikastaroak



ORONOZ | 2018.02.24

**Baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa antolatu du Hazitik Hoziek**

Ruth Peña baratzezainak eskainiko du ikastaroa, Baztango agroekologia eskola herritararen barne. Oronozko Batzartokian egina dute hitzordua, 10:00etan. izena emateko: [hazitikhazie1@gmail.com](mailto:hazitikhazie1@gmail.com).

## Solasaldiak

BERA

**'Bortziritarrak Ternuan bakailao-arrantzan'**

Otsailaren 17an 18:00etan Kultur Etxean. Hizlaria Rosa Arburua izanen da.

## Tailerrak

DONEZTEBE

**Zirko familian**

Otsailaren 3an, 17an eta 24an eskoletako gimnasioan, 11:30-13:00. Izen-ematea: 659 797195.

**Bidaieen bideoak egiteko**

Otsailaren 14a baino lehen apuntatu behar da (618 485567).

**Teknika hipodepresiboen ikastaroa Bego Vielarekin**

Otsailaren 16an eta 23an Herrigunean (19:30-21:30).

LESAKA

**'Estresa nola gobernatu'**

Otsailaren 20an, 27an eta martxoaren 6an Erabilera Anitzeko Aretoan, 11:00-12:30. Izen-ematea: Lesakako Osasun Zentroan.

ARANTZA

**Hazierari buruzko tailerra Miren Camisonekin**

Otsailaren 22an. Izen-ematea otsailaren 15a baino

lehen: [arantzakogurasoelkar.tea@gmail.com](mailto:arantzakogurasoelkar.tea@gmail.com) eta 600 903057.

BERA

**Joskintza- eta literatura-tailerra 7-12 urtekoentzat**

Otsailaren 23an 17:30ean Herri Liburutegian, Marga Matxiarenarekin.

ORONOZ

**Baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa**

Otsailaren 24an Ruth Peña baratzezainarekin batzartokian, 10:00-12:00. Izen-ematea: [hazitikhazie1@gmail.com](mailto:hazitikhazie1@gmail.com).

## Antzerkiak

BERA

**'Txoriak eta zauriak'**

Otsailaren 24an Mairu Antzerki Taldearen eskutik, 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 3 eurotan.

DONEZTEBE

**'Amico on the beach'**

Otsailaren 18an 19:00etan. Sarrera doan.

## Dokumentalak

BERA

**'Arte al agua'**

Otsailaren 17an Olivier Van der Zeeren lana, 18:30ean

Kultur Etxean. Sarrera 3 euro (salgai Agara prentsan).

## Kontzertuak

ELIZONDO

**Huntza taldea eta Anita Parker**

Otsailaren 17an 23:00etan Lur dantzalekuan.

**Joseba Tapia eta Besamotzak**

Otsailaren 25ean Arizkunenea, 19:00etan. Sarrera dohainik, lekua bete arte.

LESAKA

**Gozarzarre abesbatza eta organo kontzertua**

Otsailaren 24an San Martin elizan.

## PROPOSAMENA

BERA

**Bortziritarrak Ternuan**

1941 eta 1960 urteen artean Bortziritako 158 gizonek atera zuten kartilla Ternuara arrantzara joateko, bizimodu aitzinera atera ahal izateko. Bada, otsailaren 17an, Rosa Arburuak hitzaldia eskainiko du Berako Kultur Etxean, *Bortziritarrak Ternuan bakailao-arrantzan* hizpide hartuta, 18:00etan. Ondotik, berriki estreinatu duten *Arte al agua* Olivier Van der Zee holandarraren dokumentala ikusteko aukera izanen da.





## Inauteriak

NARBARTE

**Inauteriak**

Otsailaren 7tik 10era.

URDAZUBI

**Inauteriak**

Otsailaren 9tik 13ra.

GOIZUETA

**Inauteriak**

Otsailaren 11tik 13ra eta  
17an.

DONEZTEBE

**Inauteriak**

Otsailaren 8tik 10era.

LESAKA

**Inauteriak**

Otsailaren 8, 11 eta 12an.

BERA

**Inauteriak**

Otsailaren 8an, 11n eta  
12an.

ARRAIOZ

**Inauteriak**

Otsailaren 9an eta 10ean.

ELIZONDO

**Inauteriak**

Otsailaren 9an eta 10ean.

LEKAROZ

**Inauteriak**

Otsailaren 9an eta 10ean.

URROZ

**Inauteriak**

Otsailaren 9an eta 10ean.

ETXALAR

**Inauteriak**

Otsailaren 8tik 13ra.

ANIZ

**Orakunde**

Otsailaren 10ean.

SARA

**Inauteriak**

Otsailaren 17an eta 18an.

SENPERE

**Inauteriak**

Otsailaren 17an.

## Nire aukera



**Karmele Cestau**

Iruñean bizi den ezkurarra

*«Bakoitzak nahi duen hori, benetan nahi badu, lortzeko aukera izanen du»*

**E**zkurran sortu bazen ere, «aspaldixkoan» Iruñean bizi den emakumea da Karmele Cestau. «Bihotza» izan zuen *herri txikitik infernu handirako* garraiolari. Gaztea zelarik, «etxe-koei ez nintzatekeela inondik inora han biziko esaten nien, baina, maitasuna tarteko, infernuan paradisua ikusi nuen, ordutik hantxe dut kabia, Iruñeko Buztintxuri karrikan». Erroak, ordea, «zalantzarik gabe» Ezkurran ditu. Hori horrela, herrira «maiz» bueltatu izan da, «berezik gurasoak bizi zirenean sortetxera, Plazenera, joaten ginen, miresmenez gordeko dudak txokoa da». Gurasoen «heriotzak» asko aldatu du herriarekiko zuen lotura. Izan ere, «nire sortetxea zena anaiarena da orain, eta ondorioz, gutxiago joaten gara, eta joaten garenetan hutsune handia nabaritzen dugu». Aldaketa «gogorra» izan da, «bai niretzat bai eta alabentzat ere». Herriak «askatasuna eta batasuna» eskaintzen dion heinean, Iruñean, «jendea gero eta hotzagoa dela» iruditzen zaio: «etorri nintzenean banekien nor bizi zen pareko pisan. Orain, batzuk atera eta besteak sartu ibiltzen dira, asko behin-behineko bizitokiak bilatzen dituzten maizterrak dira». Horixe da, hain zuzen, faltan botatzen duena «lagunak, harreman estuko jende ona, hurbil izatea. Gauza fisikoak benetan nahi badira, eta lor daitezkeela sinisten bada, lortzeko aukera izan badela uste dut, horrelakoek, ordea, ez dute preziorik». Halere, «alabak gertu izateak» denbora librean «familiarrekin egoteko» aukera eskaintzen dio, «amatxi izan naizenetik ez dago biloba zaintzea baino plan hobirik». Gainerakoa, «kirola egiteko» aprobetxatzen du. Oinez, lasterka... ibiltzeaz gainera, «kapoeira eta arte martzialen inguruko bestelako kirolak ere» probatu ditu, «aukera sortzen den horri heltzen diot». Halaxe ekin zion txingetan ibiltzeari ere, «ustekabea» baina ez edonola, duela bi urte Nafarroa mailan bigarren postua lortu baitzuen. Ahal bada, egindako kirola «mendiaren lasaitasunean» egitea gustatzen zaio. Baina «mendiak ez ezik, itsasoaren soinua ere energia handia ematen dit, indarberritzeko, bata zein bestea ezinbestekoak zaizkit».

**«Iruñean jendea gero eta hotzagoa da, parean nor bizi den ere ez dakit. Gehienak behin-behineko maizterrak dira»**

## Bertsoak

ESKUALDEA

**Bardoak Nafarroako taldekako bertso egitasmoa**

**Otsailaren 9an** Lesakako Arrano elkartearen bertso-merendua Unibertsolariak eta Barakinak taldeekin (19:00).

**Otsailaren 17an** Elgorriagako ostatuan bertso-merendua, Addams familia eta Barañeta taldeekin, 18:00etan.

## Zinema

DONEZTEBE

**Erreka Guraso Elkartearen eskutik**

**Otsailaren 11n eta 25ean** 16:30ean.

## Dantzak

ELIZONDO

**Baillableak**

**Otsailaren 11n** muxikoak, jotak eta larrain-dantzak 12:45ean Elizondoko plazan.

## Azokak

BERA

**Bertako ekoizleen merkatua**

**Otsailaren 10ean** Ricardo Baroja eskolako arkupeetan, 10:00-13:30.

## Mendi irteerak

SUNBILLA

**Mendigoizaleen ateraldiak**

**Otsailaren 11n** Auñamendira, 05:30ean abiatuta.

BAZTAN

**Mendigoizaleen ateraldiak**

**Otsailaren 18an** Aurtiztik Mendaurrera (07:30ean).

**Otsailaren 25ean** Elizondotik Iraizozera (06:00etan).

ZUGARRAMURDI

**Aburia Mendi Taldea**

**Otsailaren 25ean** Saratik Ibardinera (08:00etan plazan).

LESAKA

**Beti Gazteko mendi taldea**

**Otsailaren 11n** Aialdera.  
**Otsailaren 25ean** Aizkolegira.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ELIZONDO.** Akullegin 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

**ITUREN.** Hainbat neurritako apartamentuak hagitx prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

**ANZABAL****INMOBILIARIA**

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN** Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian** Eskariagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI.** Bizitzera sartzeko etxea salgai. 1.100m<sup>2</sup>ko partzelan. Eguzkitsua. Bista onak.

**DONEZTEBE** Aukera: 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moblezatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

T. 948 580 804  
www.anzabal.com

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**LESAKA.** Pisua errentan hartu nahi dute. ☎633 635867.

**BERAN EDO INGURUAN.** Neska batek pisua errentan hartu nahi du. Lehenbailehen sartzeko. ☎625 138347.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan emateko

**BERA.** Garbi ogi&coffee kafetegia eskualdatzen da. ☎646 356983.

**LURRAK/ORUBEAK**

salgai

**DONEZTEBE.** Herri sarri-reran, NA-1210 errepidetik 24. kilometroan, 2.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. ☎630 948271.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**LANA**  
eskaintzak

**ELIZONDO.** Bidegain arraindegian berehala lanean hasteko prest da goen langilea behar dute. Lan finkoa, asteartetik larunbatera goizez aritzeko. Ezinbertzekoa da gida-baimena izatea. Interesatuek deitu, dendara joan edo curriculuma bidali: [info@pescadosbidegain.com](mailto:info@pescadosbidegain.com). ☎606 585163 / 948 580496.

**BERA.** Esperientzia duen kamioi mekanikaria behar da. Asteleheneretik ostiralera aritzeko. ☎679 892032.

**ARIZKUN.** Zurgindegian bi langile behar dituzte. ☎699 953257 / 659 746794.

**LESAKA.** Aliprox dendan, autonomo bezala harategia errentan hartuko duen norbait behar

dute. Asteleheneretik larunbat eguerdira lanean aritzeko. ☎699 651202.

Fabrika batean aritzeko **tornularia** behar dute. Bidali curriculuma helbide honetara: 8. Posta Kutxa, 31700 Elizondo.

**BERA.** Benta Mendi Mendian jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar dute. Frantsesez jakitea beharrezkoa da. ☎616 108035.

**BERA.** Ibardinen zerbitzaria behar dute asteburuetan, jai-egunetan eta udan lan egiteko. Frantsesez jakitea eta esperientzia izatea balartuko dute. ☎948 630311.

**HAZPARNE (Lapurdi).** Ardi eta behien baserri batean gazte bat behar dute, lehenik laguntzeko eta gustura baldin bada, etxeokoin negoziarioan segitzeko. Euskaraz jakitea

ezinbertzekoa da. ☎0033 698 313701.

**BERA.** Ibardingo Mendiko sagardotegian langileak behar dituzte igande eta jaiegunetan lan egiteko. ☎948 630302.

**BERA.** Larungo benta batean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar dute 6 hilabetez lan egiteko. ☎607 566022.

**BERA.** Larungo benta batean frantses pixka bat dakien sukaldaria behar dute (ez da jatetxea). ☎607 566022.

**LANA**  
eskariak

Gizonezkoa **lan bila**, adinekoak interno moduan edo orduka zaintzen, erakuntzan edota ganadurekin lan egiteko. Adinekoak zaintzen eta ganadurekin esperientziaduna. ☎644 471128.

Neska batek **garbiketan** edo pertsonen **zaintzan** lan eginen luke. ☎686 947418.

28 urteko neska lan bila, **ostalaritzan edota komertzial** aritzeko prest. Ostalaritzan zerbitzari lanetan eta sukalde laguntzaile bezala lan egindakoa, baita komertzial bezala bezeroei arreta eginez ere. Ingeleseko erdi maila. ☎622 119220.

Haurrak edota adinekoak **zaintzeko** lan bila, baita **garbiketan** aritzeko ere. ☎688 425860.

**Adinekoak zaintzeko** lan bila. Interna moduan, orduka edota asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia adinekoak zaintzen. ☎693 694949.

Adinekoak edota haurrak zaintzeko edo etxeetan edo instalazioetan garbiketan lanetan aritzeko **lan bila**. Esperientzia lan horietan guztietan. ☎644 778212.

Adinekoak eta haurrak zaintzen eta garbiketan aritzeko esperientziadun **neska lan bila**. ☎644 963709.

**Emakume arduratsua eta esperientziaduna** lan bila: garbiketan, haurrak edota adinekoak zaintzen, edo konpainia egiteko prest, goizez edo gauzez. Kotxeko karnetarekin. ☎608 371643.

**Umeak zaintzen esperientziadun** neska lan bila. Bi urteko esperientzia zenbait haur eskoletan, baita udan zehar haurren

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(urtarrilaren 16tik 26ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 48 €

**Zerri gizena**  
0,995 € kiloak.

**Zerramak:**  
0,530 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/k Kanal  
**Extra** 4,35

**1.koa** 4,13  
**2.koa** 3,93

**Urruxak:** €/k Kanal  
**Extra** 4,37  
**1.koa** 4,23  
**2.koa** 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 160,00  
idixkoak 200,00

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 140,00  
idixkoak 185,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,29/3,39  
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,00/6,60  
8-10 kilokoak: 5,00/5,80

zaintzetan ere. Urtarriletik aurrera umeren bat zaintzea nahi izanez gero, jarrri harremanetan whatsapppe. ☎675 336624.

**Adinekoak zaintzeko** lan bila. Interna moduan aritzeko prest. ☎632 773489.

Adineko eta haurren zaintzetan eta garbiketean aritzeko lan bila; **esperientziadun neska**. Interna, orduka edo asteburuetan aritzeko prest. ☎664 149530.

Adinduak zaintzen, garbiketean edo sukalde laguntzaile aritzeko **lan bila**. Esperientzia adinekoak zaintzen. ☎676 715998.

**Mutil bat** lan bila. ☎671 189530.

**Esperientziadun mutila** lan bila. ☎631 202480.

**Esperientzia duen emakumea** adinekoak zaintzen eta garbiketean aritzeko prest. ☎612 229444.

**Esperientziadun emakumea** lan bila. Adinduak zaintzen, garbiketean... aritzeko prest. ☎618 081748.

### ZERBITZUAK

#### klase partikularrak

**LESAKA**. Klase partikularrak ematen ditut: matematika, fisika, kimika, ingelesa, hizkuntza... unibertsitateko maila arte. Talde murriztuak. Esperientzia zabala klase partikularrak emateko. ☎605 762880.

### MOTORRAK salgai

**Peugeot 308 HDI Sport** autoa salgai, 110 CV, 95.000 km. Argi automatikoak eta abiaduraren kontrolarekin. Bizona klimatizagailua. Laino-argiak, eta hagin edo llantak alineatuta. 2010eko maiatzekoa. Beti garaje-an egondakoa da eta egoera hagitz onean dago. Aukera paregabea. ☎696 290759.



**Animalientzako van-a** salgai, 1.200 kilo arte. Egoera onean. ☎649 803716.



**Ford Focus** autoa salgai, 2012koa. Diesela. 8.000 euro. ☎699 375558.



### ANIMALIAK salgai

**BERA**. Egiluze baserrian, 20 ardi ernari salgai. ☎679 555036.

**Betizuak** salgai, mantsoak eta onak. ☎655 706073.



### ANIMALIAK erosi

**Ardi latxa mutur gorriak** erosi nahiko nituzke. ☎600 791967

### ANIMALIAK oparitzeko

**LEITZA**. Border Collie arrazako 3 zakurkume oparitzeko. 2 hilabete ingurukoak. ☎948 610689 / 636 022311.

### DENETARIK salerosketak

**Tximeneta** salgai, egurrarekin berotzeko. Base-ri, txalet edo bordarako



egokia. Egoera onean. ☎667 518485.

**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎948 585036.

Bigarren eskuko **sukalde industrialia** salgai. Bi su eta txapa bat. Labea egoera onean. Elkarre baterako egokia. ☎687 736970.



**Belar xehea fardo ttikietan** salgai. ☎618 962774.

**IRUN**. Taxi lizentzia eta egoera onean dagoen taxia (Toyota Prius) salgai. Lan dezenterekin. ☎679 568030.

**Rack armairua** salgai, 19" 9U 60x45x50 cmko neurria. Prezioa 35€. ☎948 635458.



**Soinu tresneria profesionala** salgai: bozgoragailuak, soinu etapa, mahai eta efektuak, mikro-

**RENAULT SANTESTEBAN TAILERRAK**

**Estreintatu gabea**

**18.950€** **KM 0**

**KADJAR TECH ROAD DCI 110 CV**  
klimatiz. 6 marbxa, apark. radarra

**Estreintatu gabea**

**15.100€** **KM 0**

**MEGANE TECH ROAD DCI 90 CV**  
klimatiz. 6 marbxa, apark. radarra

Biak sustapen finantzieroei lotuak

Leitzako errepidea **DONEZTIBE**

T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

fonoak, argi fokoak, kanpoko megafonia handia eta kotxean jartzeko, dispositiba aparatua, pantailak, kableak, hankak eta Rack haundia. ☎609 477277.

### DENETARIK galdu-aurkituak

**LESAKA**. Abenduaren 24an, bizkar-larru bat desagertu zen Rural Kutxaren ondoko portal batean. Norbaitek ikusi badu, faborez deitu. Bizkar-larruan izena ageri da. ☎618 735539.

**GOIZUETA**. Azaroaren 25ean, feri egunean, beroki bat aurkitu zuten. Galdu zuenak udaletxera dei dezala. ☎948 514006.

# Erabili Ttipi txartela pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

# PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELOZIRI



## ABORDATZERA



### ITZALA

Zure ustez, zer egin behar da eguna ongi hasteko? Ba, hasteko eta behin, ongi gosaldu. Bilatu itzal zuzena ondoko mokadu oparo honi.



1

2


3

4

5

6

7



Hamabi laukitxo hauetatik zazpi irudi handitik hartutako zatiak dira. Beste gainerakoak, berriz, irudi engainagarriak dira. Aurki itzazu.

## IZOTZETAN

Pellozirik eta Maripurtzilek izotzetan patinatu nahiko lukete. Aurkitu horien eta ispilatutako irudiaren artean dauden zazpi ezberdintasunak.



## INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

KIOSKOA  
JOLAS-PARKEA  
AZOKA  
UDALETXEA  
IKUSKIZUNAK



IPUINAK  
KOMIKIAK  
MARRAZKIAK




Kontsultatu soluzioak  
[plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak)

## ASMATU

Ba al dakizu  
zer dioen  
esaerak?

INOR EZ DA...

- 1 ... bat-batean tximino bihurtzen.
- 2 ... norberaren haurra bezain eder.
- 3 ... amaren bularrean aspertzen.
- 4 ... ikasia jaiotzen.
- 5 ... amarekin harrotzen.
- 6 ... sehaskatik matematika zale.
- 7 ... ondo jan gabe inora heltzen.
- 8 ... ametsik egin gabe bizi.



# urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,55€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



**NAROA MUTUBERRIA PAGOLAK** otsailaren 5ean 6 urte bete ditu. Auniz urtez Bera eta Arantzako familiaren partetik eta muxu haundi-haundi bat.



**KATTALINEK** 6 urte bete ditu otsailaren 4an. Zorionak, urte askoz! Muxu haundi bat etxekoan partetik.



**OIHAN LUJANBIO SANCHEZK** 12 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.




**Lesakako MIREN YANCI CHARLESEK** 5 urte beteko ditu otsailaren 17an. Auniz urtez atta, ama, amaxi, Iruñeko eta Nigeriako familiaren partetik. Muxu, muxu, muxu!



**Sunbillako ANDER PETRIRENA GOROSTERRAZURI** ongi-etorria eman behar diogu. Urtarilaren 24an sortu zen. Zorionak familia guztiaren partetik amatto Nereari eta Ibai anaiari. Orain asko gozatu eta disfrutatu, urteak segituan pasatzen dira.



**Urozko AINHITZE BABACE ZABALETAK** urtea bete du otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat Urroz, Leizta eta Sunbillako familiaren partetik, bereziki zure lehengusu Nahia eta Aimarren partetik. Segi beti bezain alai potxola!!!



**Eliziondoko ALAIA ARTETA MIKELPERIZENAK** otsailaren 8an urte bat beteko du. Zorionak familia guztiaren partetik!



**PATRIKI TELLETXEA** zubietarrari auniz urtez otsailaren 14an... urte beteko dituelako. Segi horrela talo goxoak prestatzen. Muxu asko Urdazubiko Pablo Irazoki eta Alizia Olaizolaren partetik.



**Zorionak amaxi INAXI!** Urtarilaren 29an 102 urte bete ditu. Muxu haundi bat zure etxeko familiaren partetik.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa erran.eus en

argazki soila  
**5**  
EURO

argazki bikoitza  
**10**  
EURO



## DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu:

### IRUDI KORPORATIBOAK

- Logotipoak eta Papergintza •

### ARGITALPENAK

- Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako programak •
- Udal aldizkariak, Folletoak, Liburuak •
- Mapak •

### BERTZE EUSKARRIAK

- Boletoak, Pegatinak, Lonak, Roll Up, Panelak Poltsak, Txapak, Rotulazioak •

### EGUTEGIAK

- Sakelekoak, Paretakoak, Mahai gainekoak •





nafarroako taldekako bertso ekimena

### Otsailak 9, OSTIRALA

Lesakako Arrano elkarte  
19:00etan, bertso merendua

UNIBERTSOLARIAK **BARAKINAK**

(Lesaka) (Barañain)

Eneko Fernandez  
Iban Garro  
Josu Sanjurjo  
Jon Silveira

Mintxo Astiz  
Pablo Perez  
Lizar Aleman  
Ander Baiano

### Otsailak 17, LARUNBATA

Elgorriagako ostata  
18:00etan, bertso merendua

ADDAMS FAMILIA **BARAÑETAK**  
(Baztan-Malerreka) (Barañain)

Iker Gorosterrazu  
Amaia Elizagoien  
Egoitz Gorosterrazu  
Alazne Untxalo

Jon Arrizibita  
Sahats Aleman  
Iñigo Aranguren 'Pika'  
Iker Mundiñano

informazio osoa  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)



## LIDERRAK



### GURE ESKUALDEAN

ETA BAITA AZTERKETA EGITERAKOAN

CIESEK NAFARROA GARAICO

MENDIALDEAN

HARTU DUEN 111 UDALERRIEN

EREMUAN ERE

30.000  
TTIPI-TTAPA

9.000  
DIARIO DE NOTICIAS

4.000  
ARGIA

11.000  
DIARIO NAVARRA

8.000  
GARA

6.000  
BESTE BATZUK

2.000  
BERRIA



TTIPI-TTAPA	30.000 IRAKURLE
DIARIO DE NAVARRA	11.000 IRAKURLE
DIARIO DE NOTICIAS	9.000 IRAKURLE
GARA	8.000 IRAKURLE
BERRIA	2.000 IRAKURLE
ARGIA	4.000 IRAKURLE
BESTE BATZUK	6.000 IRAKURLE

### SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%48,20
EMAKUMEAK	%51,80

### ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%12,00
25-34 URTE	%15,60
35-44 URTE	%10,00
45-54 URTE	%22,90
55-64 URTE	%18,20
+64 URTE	%21,20

### IKASKETA MAILAREN ARABERA

OINARRIZKO IKASKETAK	%36,10
OINARRIZKO BATXILERGOA	%15,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%24,50
UNIBERTSITATEA	%23,70

DATU ITURRIA: CIES, 2017KO LEHENENGO NEURKETA

TTIPI-TTAPA REKIN  
ZURE IRAGARKIAK  
ERAGIN HAUNDIAGOA DU

**Ttapi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**702** aleko irabazleak >



## ZOZKETAK

**Baga Biga - CD/DVD**

Belen Belarra Mariñelarena | ELBETE

**Baga Biga - CD/DVD**

Mikeli Olaetxea Altzugarai | LESAKA

**Irrisarri Land - 2 sarrera**

Rosa Artola Arraigo | IHABAR-ARAKIL

**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**

Josune Makibar Urizar | ARRAIOZ

**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**

M<sup>o</sup> Dolores Agirre Zabaleta | LEITZA

**Erein - 2 liburu**

Jose Fco. Ordoki Larretxea | DONEZTEBE

**Arkupe - Lote bat**

M<sup>o</sup> Angeles Olaetxea Mitxelena | ITUREN

**Elkar - Liburu bat**

Maidar Ansa Zugarramurdi | ETXARRI-ARANATZ

**Elkar - Liburu bat**

Eduarne Suarez Urrutia | IRUÑA

2 tiket



**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)

2 sarrera



**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**OKILLE TAILERRA**

[www.okilletailerraesp.blogspot.com](http://www.okilletailerraesp.blogspot.com)



Eguzkilore bat

**MU  
SI  
KA**



**Etsaiakeroak**  
Lur errebeldean

**baga-biga**  
MUSIKA IDEIAK

[www.baga-biga.eu](http://www.baga-biga.eu)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.maukamusik.com](http://www.maukamusik.com)



[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)